

FINANTZAK ETA GENERO DESBERDINKERIAK

NON GAUDE **HAMARKADA** BAT GEROAGO?



Proiektuaren koordinazioa: Cristina de la Cruz-Ayuso

Txostenaren egilea: Cristina de la Cruz-Ayuso

Araudiari buruzko 2. kapituluaren egilea: Dolores Morondo Taramundi

Azterketaren datuak: Adimen.

Diseinua eta maketazioa: Hari Contando contigo Koop. Elkarte txikia

Itzulpena: Bakun, S.L.

*Lan hau lizentzia bati lotuta
dago: Aitortu-Ez Komertziala-
Partekatu Berdin 3.0 Espainia
Creative Commons.*



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

AURKEZPENA

Dokumentu honetan, finantza etikoen esparruko erakunde-sare baten interes eta konpromisoa jasotzen da. Guztiak [Finantzaz Haratago](#) inguruan elkartu dira, hezkuntza ekonomiko kritiko eta eraldatzailea sustatzeko helburuarekin. Hauek osatzen dute plataforma hori: Elkarcredit Elkartasun Erakundea, Fiare Euskadi Elkartea, Mugarik gabeko Ekonomialariak (EsF)-Euskadi, KOOP57 eta OIKOCREDIT-Euskadi. Guztiek sustatu dute 2015ean Setem-ek egindako Genero-desberdinkeriei eta Finantzei buruzko azterlanaren eguneratze-proiektua. Setem-ek ere parte hartu du azterlanaren bigarren fase honetan.

Azterlan honen helburua da, lehen txostena egin zenetik hamar urte igaro direnez, Euskadiko testuinguruan eta finantzen esparruan dagoen genero-arrakala aztertzen laguntzen duen begirada eskaintzea. Duela hamarkada bat azterketa egiteko muga metodologikoak identifikatu baziren ere, biztanleek finantza-sektorearekin dituzten harremanetan genero-desberdinkeriei buruzko esparru ia ikertu gabeari buruzko ikerketa-ildo bat garatzeko oinarriak finkatu zituen lan hark.

Gaur egun, gaia zorroztasun handiagoz arakatzen laguntzen duten ildoak ireki dira. Hausnarketaren irismenak mugatua izaten jarraitzen badu ere, desberdinkeria hori iraunkorragoa den esparruak zein diren identifikatzeko aukera ematen du. 2024ko azterketa honek berretsi egiten du egiturazko mekanismo eta mekanismo sinboliko batzuek zer nolako pisua duten emakumeek finantza-produktuak atzitzeko garaian. Azterlanaren kartografiak desberdinkeriaaren errealitate iraunkorrekin batera bizi den ikuspegi positiboa erakusten du, eta errealitate horien gainean lanean jarraitu behar da, horiek aldatzeko. Estereotipoek eragin handia dute oraindik finantza-erabakien arloan. Literaturak ebidentziak aurkitu ditu haiek emakumeen bizitzan dituzten ondorioei buruz, baina, aldi berean, desberdinkeria horren arrazoiak ulertzeko eta onartzeko zailtasuna eta erresistentzia nabarmentzen duten froga sendoak eskaintzen ditu.

Guztia hobetzen ari dela dirudi. Alabaina, azterketak ondorioztatu duenez, genero-estereotipoek haiek iraunkor bihurtu, arrazionalizatu eta botere-hierarkiak finkatu egiten dituzten sistema edo jarduerak naturalizatu edo ikusezin bihurtzea ahalbidetzen dute.

Finantzaz Haratago-ren sustapenarekin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin, azterlan honen arduradunak hauek izan dira: Cristina de la Cruz, txostenaren gauzatzea koordinatu eta esku artean duzun azken bertsio hau idazteaz arduratu dena. Dolores Morondo, araudiarekin erlazionatutako atala idatzi duena, eta Adimen enpresa, Patxi Alija-k koordinatuta, landa-azterketa egiteaz arduratu dena. Orrialde hauetan gauzatu da azterlan honen garapenean parte hartu duten pertsona guztien lanaren emaitza. Haren helburua da ikuspegi feministaren lurrinak zeharkatzen duen ekonomia sozial eta solidarioa sendotzen laguntzea, gure erakundearen barne-funtzionamendua nahiz haien artean sortzen diren harremanak gidatzen dituzten dinamikak morez tindatzeko helburuarekin.

Ezinezkoa gertatu egiten da. Hori da, hain zuzen, azken hamar urteetan lagun izan dugun pentsamendua. Horrek berak elikatzen du aurrera egiten jarraitzeko gure konpromisoa, benetan gertatzen dena posible den gauza bakarra izan ez dadin.

On dagizuela.

Laburpen exekutiboa

Genero-desberdinkeria eta finantzei buruzko txosten honetan, [Setem Hego Haizeak erakundeak 2014. urtean argitaratu zuen azterlanaren](#) edizio berrikusia eta eguneratua jasotzen da. Horren helburua da aztertzea ea emakumeen eta finantza-erakundeen arteko harremanetan tratu desberdina dagoen, eta horiek handitzen edo murrizten laguntzen duten prozesuak eta harremanak zein diren.

Hamar urte geroago, bizirik diraute gai honi buruzko galderak nahiz interesa. **Genero-desberdinkeriak** erakundeek eta, oro har, finantza-sistemaren logikak berak eta antolaketak eragindako **egiturazko diskriminazio mota bat dira**; izan ere, desberdinkeria mota hori **ikusezina da genero-desberdinkeriarik dagokionez kontzientziazio, babes eta eragin handiagoa duten beste gizarte-eremu batzuekin alderatuta**.

Azken hamarkada honetan, agenda politikoan gero eta interes handiagoa hartu du gai horrek. Finantza-arloan genero-arrakala geldiarazteko sustatu diren ekimenak kontaezinak dira. Bestalde, ikerketak aurrerapauso handiak egin ditu arrakala horren mugaketa enpirikoa gauzatzen. Gaur egun gehiago dakigu emakumeek finantza-erakundeekin dituzten harremanen izaerari eta irismenari buruz. Hala ere,

oraindik ere muga metodologiko asko daude, finantzetan dagoen genero-desberdinkeria benetako irismena argi eta garbi baloratzea galarazten dutenak.

Hamarkada bat geroago, desberdinkeria aurre egiten dioten eta horren kontra egiten duten prozesuei buruzko ikerketek garrantzi gutxi eta mugatua dutenez, berriro egin genuen proiektu hau 2014. urtean abian jartzea eragin zuen galdera: Nola gaude hamar urte geroago?

Finantza-bazterketa da oraindik ere bazterketaren ardatz nagusietako bat populazioaren ehuneko handi batentzat. Europako herrialde gehienetan, pertsona askok zailtasunak dituzte merkatu konbentzionaleko finantza-zerbitzuak eskuratzeko eta/edo erabiltzeko. Halaber, bere horretan jarraitzen dute kolektibo jakin batzuei banku-kontu bat irekitzeko edo ireki ondoren eragiketak egiteko bankuek jartzen dizkieten zailtasunak. Oro har, literaturan etengabe agertzen dira ebidentziak, maila globalean eta, bereziki,

Europar finantza-bazterketaren maila handitu egin dela frogatzeko.

Bazterketa finantzarioa gizarte-bazterketaren dimentsio garrantzitsuenetako bat bihurtu da.

Hain zuzen, kezka gero eta handiagoa izan da azken bi hamarkadetan, batez ere, ekonomia aurreratuen ingurune sozialean finantzak harreman ekonomikoen zati handi bat definitzen duela egiaztatu ondoren. Horregatik, 2024ko *Genero Desberdinkeriei eta Finantzei* buruzko txostenaren berrikuspen honetan, kezka horren esparruan txertatu nahi izan dugu hausnarketa. Genero-desberdinkeriak, kasu askotan, egitura sozioekonomikoetan estereotipoek nola jarduten duten kontuan hartuta azaltzen dira, eta azpimarratu behar da estereotipo horiek emakumeentzat duten benetako emaitza finantza-bazterketa jakin batekin lotuta dagoela: sarbidean, baldintzetan, prezioan eta/edo tratu bereizian eragiten du.

Genero-desberdinkeriak finantzetan duen eragina eta horrek emakumeengan dituen ondorio errealak kontuan hartuta ere, gaur egun esan dezakegu, hamar urte geroago, horretaz kontzienteagoak garela eta desberdintasun horren konplexutasunari buruzko definizio-maila handiagoa dugula.

Lehenik eta behin, finantza-bazterketa zer den hobeto definitu eta zehaztu dugu. Era berean, hainbat bazterketa mota definitu dira, eta, horri esker, sakonago uler daitezke fenomeno horren izaera eta horri aurre egiteko aktibatu daitezkeen neurri zehatzak.

Era berean, bazterketak nola eragiten duen, desberdinkeria nola sortzen den eta desberdinkeria hori kolektibo batzuen kasuan diskriminatzailetzat nola har daitezkeen erakusten du. Zeharkakotasunaren ikuspegia txertatzearen ahaleginari esker, hobeto ulertu ahal izan da haren konplexutasuna.

Era berean, finantza-ondasunak eta -zerbitzuak eskuratzeko eskubideak babesten dituen araudi zehatzagoa dugu, eta, segurtasun eta babes juridiko handiagoa emateaz gain, finantza-esparru horretan diskriminazioaren aurkako neurriak ezartzeko sisteman dauden arraildurak erakutsi ahal izan ditu.

Ezagutza eta errealitate horretatik abiatuta, txosten hau hiru ataletan egituratu da, eta ondorio hauek atera ahal izan ditugu.

2024ko bigarren txosten honen ondorio orokorra hau da: egitura sozioekonomikoetan estereotipoek jarduten duten moduek azaltzen dituzte genero-desberdinkeria horiek. Emakumeentzat, estereotipo horiek eragiten duten emaitza erreala finantza-bazterketa jakin batekin lotuta dago, eta horrek modu desberdinean eragiten du finantza-erakundeekin harremanak izateko moduan.

Gure helburua generoari eta finantzei buruzko zenbait ikerketa-gaitan emaitza orokorrenak identifikatzea izan da, nabarmentzeko, zuzeneko nahiz zeharkako desberdinkeriaaren dimentsioak anitzak eta konplexuak badira ere,

literaturak argi erakusten duela genero-arrakala dagoela, eta horren justifikazio-oinarri argiena da nola eragiten duten genero-estereotipoek emakumeek finantza-esparruan dituzten harremanetan.

Txostenaren lehen zatian, analisiak erakutsi du, alde batetik, emakumeek finantza-kultura txikiagoa dutela eta finantza-ongizatearen autopertzepzio txikiagoa dutela dioten ideian oinarritutako genero-desberdinkeriaaren justifikazioak ezin direla babestu hipotesi horien aldeko datuekin. Batez ere estereotipoen ondorio dira.

Espainiako Bankuaren, Europako Batzordearen eta beste erakunde batzuen emaitzekin ezin dira azaldu modu fidagarrian finantza-ongizatearen kultura txikiagoa eta pertzepzio txikiaren arabera genero-arrakalak. Hezkuntza-maila, jaioterria, adina edo errenta gizonen eta emakumeen artean antzekoak direnean, frogatu da ez dela hipotesi hori bermatzen duen alderik ikusten.

Bestalde, generoari eta ekintzailetzari buruzko literaturaren emaitzen arabera, ezin da esan ekintzailetza neutroa denik generoaren ikuspuntutik.

Ezin zaio eutsi baliabideetarako sarbidea merezimenduan eta aukera-berdintasunean bakarrik oinarritzen dela dioten ideiarri. Proiektu ekintzaileak abian jarri eta garatzean, finantziazioa eskuratzeko garaian genero-desberdinkeria daude.

Kasu honetan ere, genero-estereotipo eta -aurreiritziak dira, antza denez, emakume ekintzaileek finantzazioa eskuratzeko duten aukeran zuzenean eragiten duten arrazoi nagusietako bat. Genero-alborapen horren egiaztapena oinarritzen da ekimena arrakastatsua izateko itxaropenen eta tradizioz gizonen emakumeek baino posizio hobea izan duten ezaugarri batzuen arteko korrelazioan. Estereotipoek eragina dute gizonen eta emakumeek nola jokatzeko espero den moduaren deskribapenak prozesatzen diren moduan. Egia da emakumeen eskubideak eta rola asko aldatu direla eta aurrera egin dutela, baina egia da, halaber, estereotipo horiek nahiko egonkorak direla denboran zehar. Ekintzailetzaren esparruan finantziazioa lortzearekin lotutako genero-arrakalak agerian uzten du genero-estereotipoek gaur egun duten iraunkortasuna eta eragina.

Generoarekin lotutako zuzeneko ondorio horiek zeharkako beste batzuek ere sendotzen dituzte, eta horiek indartu egiten dute emakume ekintzaileek gizonenak duten desabantaila-egoera. Finantzazioa lortzeko zailtasunak esponentzialki indartzen dituen faktore bat ekimenak txertatzen diren sektore espezifikoarekin lotuta dago: tradizioz gizonenak nagusi diren sektoreetan sartzea emakumeengan eragin kaltegarria izaten duen elementua izan ohi da. Emakumeek tradizioz gizonenak izan diren sektoreetan ekiten dutenean, ez dira hain zilegitzat eta sinesgarritzat hartzen; izan ere, izaera sexistadun ekimen ekintzaile gisa estereotipatzen dira, hazkunde-aukera edo onura gutxi duten proiektu gisa. Azkenik, lehenengo kapitulu hori kasu-azterketa batekin ixten da, non, kreditu-eskaera baten simulazioaren bidez, emakumeek finantza-baliabideak eskuratzeko dituzten desabantailak eta oztopoak agerian jartzen baitira. Ikuspuntu intersektionala txertatzean, hots, adina, arraza, etnia eta antzeko aldagaiak sartzen direnean, areagotu egiten dira emaitza horiek.

Bigarren kapituluaren ondarean eta zerbitzuak eskuratzeari buruzko arau-esparruaren zerrenda zehatza jaso da, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioarekiko alderatuta. Finantza-zerbitzuei arreta berezia jartzen zaie esparru horretan. Tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza lortzeko uztailaren 12ko 15/2022 Lege integralak esplizituki jasotzen du sexuagatiko diskriminazioa debekatzea, besteak beste. Gainera, atal honetan, diskriminazioaren aurkako eskubidearen esparrutik abiatutako azterketa juridikoa aztertzen da, bai eta teknologia berrien eta adimen artifizialaren esparruan diskriminazioa debekatzea ere.

Deigarria da, besteak beste, ondasunak eta zerbitzuak (finantzarioak) jendaurrean eskaintzean tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea babesten duen araudia oro har indartu arren, datuak berresten dutela hartu-eman ekonomikoetan genero-arrazoiengatik ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko diskriminazioa etengabeko fenomeno dela diru-sarrera handiko ekonomia duten herrialdeetan.

Egoera hori Euskal Autonomia Erkidegoan aztertzeo, txostenaren azken zatian, 2014. urtean biztanleriari eginiko inkestako datuak eguneratu dira, eta orduz geroztik emaitzen bilakaera aztertu da, bi ondorio erakusteko asmoz: 1) genero-desberdinkeria horiek, gehienetan, estereotipo nagusietan oinarritzen direla, eta 2) estereotipo horiek baldintzatu egiten dutela eta eragina dutela emakumeek finantza-erakundeekin duten portaeran.

Labur-labur, txostenaren laugarren atalean aurkeztutako emaitzei esker, aipatutakoez gain, 2014koei buruzko zenbait datu nabarmendu daitezke. Hauek dira:

- **Sexuaren aldagaia adierazgarria da azterketan, adina, diru-sarrerak, jatorria eta abarrekin batera sartzan denean, eta horrek argi erakusten du oso garrantzitsua dela zeharkako ikuspegia finantzetako genero-desberdinkeria aztertzean.**
- **Ikerketak erakusten du adierazle batzuek bilakaera ona izan dutela 2014arekiko: emakumeek autonomoagoak gara eta modu aktiboagoan parte hartzen dugu finantza-erabakietan. Kontrol eta segurtasun finantzario handiagoa dugu, nahiz eta elementu horiek guztiak gure gaitasun ekonomiko handiago edo txikiagoari lotuta egon.**
- **Emakumeen bilakaera gizonena baino positiboagoa izan da, finantza-autonomiaren mailari dagokionez. Hau da, emakumeak autonomoagoak dira finantza-erabakietan eta finantza-erakundeekin harremanetan. Gainera, bikotekidearekin bizi direnean, presentzia handiagoa dute partaidetza bateratuan.**
- **Bestalde, 2014ko emaitzekin alderatuta, emakumeak finantza-erakundeekin tratuan duen funtzioa indartu egin da, eta kasuen %32,6an emakumeak dira tratu hori bere gain hartzen dutenak; gizonen kasuan, berriz, %37,1ekoa da.**
- **Oro har, gero eta independenteagoak dira emakumeak izapide eta erabaki autonomoei dagokienez, hirugarrenei kontsultatu beharrik gabe aritzean.**
- **Badirudi finantza-segurtasunaren eta kontrolaren arteko alde nabarmenenak emakumeen ahalmen ekonomikoarekin lotuta daudela, beste aldagai batzuekin baino gehiago, esaterako, prestakuntza-mailarekin.**
- **Nahiz eta EAEko biztanleriak, finantza-erabakiak hartzeko orduan, kontserbadorismo handia izateagatik nabarmentzen den, 2014ko emaitzekin alderatuz gero, gizonen zein emakumeek finantza-arrisku handiagoa hartzen ari direla dirudi; hala ere, gizonen kasuan, agerian geratzen da, zenbat eta prestakuntza handiagoa izan, arriskurako joera handiagoa dagoela, eta hori ez dela hain nabarmena emakumeen artean.**
- **40 eta 54 urte bitarteko gizonen arrisku handiagoa hartzen dute finantza-erabakietan. Emakumezkoetan, aldiz, adinak erabakitzen du bere gain hartutako arrisku-maila, eta adin txikikoak dira arrisku handiena hartzen dutenak eta zaharrenak gutxien hartzen dutenak.**
- **Finantza-aholkularitza eskatzeko erabiltzen den sareari dagokionez, banketxea da finantza-produkturen bat kontratatzerakoan herritarren informazio- eta aholkularitza-iturri nagusia, prestakuntza-maila edozein dela ere. Sexuaren arabera, gizonen Internet gehiago kontsultatzen dute bitartean, senide edo bikote bat da emakumeen artean aholkularitza-baliabide arruntagoa.**

- **Emakumeek hautemandako diskriminazio-mailari dagokionez, zenbat eta nagusiagoak izan emakumeak, orduan eta diskriminazio gutxiago sumatzen dute. 2014. urtearekin alderatuta, emakume gutxiagok ikusten dute gutxienez diskriminazio bat, %16,5ek, eta aurreko urteko %18,8ekin alderatuta.**



Azterlanaren kartografiak desberdinkeria errealitate iraunkorrekin batera bizi den ikuspegi positiboa erakusten du, eta errealitate horien gainean lanean jarraitu behar da, horiek aldatzeko. Estereotipoek eragin handia dute oraindik finantza-erabakien arloan. Literaturak ebidentziak aurkitu ditu haiek emakumeen bizitzan dituzten ondorioei buruz, baina, aldi berean, desberdinkeria horren arrazoiak ulertzeko zailtasuna nabarmentzen duten frogak sendoak eskaintzen ditu.



***Gauzak egiteko aukera emango digun
justiziaren ikuskera proposatzen dut.
Justizia ez litzateke banaketari buruzkoa
bakarrik izan behar, baizik eta banakako
gaitasunak, komunikazio kolektiboa
eta lankidetzaren garatu eta gauzatzeko
beharrezkoak diren erakunde-baldintzei
buruzkoa ere izan behar du.***

[Iris Marion Young, 2000: p. 71]





Aurkidea

• Aurkezpena	02	• 3. Desberdinkeria-sareak finantza-erakundeekiko harremanetan	32
• Laburpen exekutiboa	03	3.1 Desberdinkeria zertan eta zerekiko	33
• Taulen aurkibidea	09	3.2 Azterketaren hipotesia eta metodologia	41
• Grafikoen aurkibidea	10	a) Finantza-bazterketa motak	41
• Sarrera	11	b) Finantza-arloan genero-desberdinkeria definitzen duten faktoreak	42
• 1. Genero-desberdinkeriak finantza arloan: zer aldatu da azken hamarkadan?	16	3.3 Síntesis	38
1.1 Ez da [soilik] jakintza izatea, pertzepzio desorekatua ere bada: genero-desberdinkeriak finantza-eskumenekiko eta finantza-ongizatearekiko	18	• 4. Finantza-sektoreko genero-desberdinkeriak populazioan	39
1.2 Ez da [soilik] eskura izatea, konbentzitzea ere bada: enpresa-finantziarioa eskuratzeko genero-desberdinkeriak	20	4.1 Autonomia finantzarioaren maila emakumezkoetan eta gizonezkoetan	40
1.3 Ez da [soilik] nahi izatea, boterea izatea ere bada: genero-desberdinkeriak finantza-produktuak eskuratzeko garaian	22	4.2 Finantza-kontrola	51
• 2. Araudia	25	4.3 Finantzekiko balioak eta jarrerak	58
2.1 El principio de igualdad y no discriminación en el acceso a bienes y servicios	25	4.4 Sare formal eta informalen erabilera finantza-jardueran	66
2.2 La prohibición de discriminación en los servicios financieros	27	4.5 Genero-aurreiritziak herritarren artean	73
2.3 La prohibición de discriminación interseccional	29	• Ondorioak	77
2.4 La prohibición de discriminación en el ámbito de las nuevas tecnologías y la inteligencia artificial	30	• Erreferentziak	82

Taulen aurkibidea

1. taula: Etxeko gaitan erabakiak hartzen parte hartzea	40	12. taula: Zailtasunak emakumeen eta gizonen banku-transakzioetan	58
2. taula: Oinarrizko finantza-produktuei buruzko erabakietan parte hartzea	41	13. taula: Finantza-arloan, emakume eta gizonen balore “maskulino” eta “femeninoekin” duten identifikazio-maila	64
3. taula: Finantza-produktu konplexuei buruzko erabakietan parte hartzea	42	14. taula: Finantza-arloan, emakume eta gizonen balore “maskulino” eta “femeninoekin” duten identifikazio-mailaren bilakaera	65
4. taula: Finantza-autonomiaren mailak emakumeetan	44	15. taula: Emakumeek eta gizonen erabilitako finantza-aholkularitzako sareak ikasketa-mailaren arabera	67
5. taula: Emakumeen finantza-autonomiaren bilakaera	45	16. taula: Emakumeek eta gizonen erabiltzen dituzten finantza-aholkularitzako sareen bilakaera	68
6. taula: Finantza-autonomiaren mailak gizonetan	46	17. taula: Emakumeek eta gizonen erabiltzen dituzten finantza-aholkularitzako sareak, etxerako diru-ekarpenen arabera	69
7. taula: Gizonen finantza-autonomiaren bilakaera	47	18. taula: Emakumeen eta gizonen maileguetarako sarbidea, mailegurako arrazoiaren arabera eta diru-sarreraren mailaren arabera	71
8. taula: Finantza-erakundeekiko tratua, etxerako diru-ekarpenen arabera	49	19. taula: Emakumeen eta gizonen maileguetarako sarbidearen bilakaera, mailegurako arrazoiaren arabera	72
9. taula: Finantza-erakundeekiko tratuaren bilakaera	50	20. taula: Emakumeen eta gizonen maileguetarako sarbidea, mailegurako arrazoiaren arabera eta finantza-autonomiaren mailaren arabera	73
10. taula: Emakumeen eta gizonen finantza-jarduera, etxerako diru-ekarpenen arabera	51	21. taula: Estereotipo nagusiekin bat egiten duten mailaren bilakaera finantzekiko	75
11. taula: Emakumeen eta gizonen finantza-jardueraren bilakaera	52		

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa: Populazio-profilak, finantza-erabakien gaineko autonomiari dagokionez	43
2. grafikoa: Populazio-profilak finantza-erabileraren kontrolaren arabera	54
3. grafikoa: Populazio-profilak finantza-erabileraren kontrolaren arabera: gizonak eta emakumeak	55
4. grafikoa: Bankuekiko autonomia-mailaren eta emakume eta gizonen finantza-erabileran duten kontrol- eta segurtasun-profilaren arteko erlazioa	56
5. grafikoa: Finantza-erabileran duten kontrol- eta segurtasun-profilaren eta emakume eta gizonen bankuekiko duten autonomia-mailaren arteko erlazioa	57
6. grafikoa: Emakumeen eta gizonen arrisku finantzarioekiko ezinikusia, ikasketa-mailaren arabera	59
7. grafikoa: Emakumeen eta gizonen arrisku finantzarioekiko ezinikusia, adinaren arabera	60
8. grafikoa: Emakumeen eta gizonen arrisku finantzarioekiko ezinikusia, finantza-autonomiaren mailaren arabera	61
9. grafikoa: Emakumeen eta gizonen arrisku finantzarioekiko ezinikusia, bizikidetza motaren arabera	62
10. grafikoa: Emakumeen eta gizonen arrisku finantzarioekiko ezinikusia, laneko harremanaren arabera	63
11. grafikoa: Emakumeek eta gizonen erabiltzen dituzten finantza-aholkularitzako sareak	66
12. grafikoa: Estereotipo nagusiekin bat egiten duten maila finantzekiko	74
13. grafikoa: Diskriminazioaren pertzepzio-maila emakumeen aldetik, adin-taldea	76



Sarrera

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak maila, klase edo pribilegioei buruzkoak bezain arbitrarioak dira.

[Mary Wollstonecraft, 1994: 58. or.]

Finantza-erakundeekiko harremanean, emakumeei tratu desberdina ematen zaie?

Duela hamarkada bat, galdera horrek bultzatu zuen hainbat erakunde eta pertsonak osatutako lantalde bat sortzea Euskadin, finantza-arloan genero-desberdinkeriarik ba ote den jakin nahi zuena, eta, erantzuna baiezkoa balitz, zer diren eta emakumeei nola eragiten dieten jakin nahi zuena. Kezkak hipotesi hau zuen oinarri: finantza-arloan ere badira desberdintasun-sareak, sare material eta sinbolikoak, banaketa arbitrarioen inguruan hierarkikoki banatzen eta antolatzen gaituztenak. Horiek sortzen eta eraldatzen dituzten prozesuen azterketaren emaitza **Finantzak eta Genero Desberdinkeriak** txostenean jaso zen, Setem Hego

Haizeak argitaratua.

Azterketa hori EAEn 2014. urtean jasotako datuetan oinarrituta egin zen. Finantza-eremuan “errenta altuko” ekonomiatzat hartutako testuinguruetan dauden genero-desberdinkeriak aztertzea zen helburua, desberdinkeria horiek nola gertatzen diren eta haiek areagotzen edo murrizten laguntzen duten prozesuak eta harremanak zein diren ikusteko. Orduan interesatu zitzaigun, eta orain, hamarkada bat geroago, berdin interesatzen zaigu **genero**-kategoriak finantza-eremuan duen tratamendu desberdina nabarmentzea.

Genero-desberdinkeriak erakundeek eta, oro har, finantza-sistemaren logikak berak eta

antolaketak eragindako egiturazko diskriminazio mota bat dira; izan ere, desberdinkeria mota hori ikusezina da genero-desberdinkeriarik dagokionez kontzientziazio, babes eta eragin handiagoa duten beste gizarte-eremu batzuekin alderatuta.

Subiranotasun ekonomikoa ezinbestekoa da pertsonen ongizate materiala zehaztuko duten ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko autonomia lortzeko. Azken hamarkada honetan, agenda politikoan gero eta interes handiagoa hartu du gai horrek. Finantza-arloan genero-arrakala geldiarazteko sustatu diren ekimenak kontaezinak dira. Bestalde, ikerketak aurrerapauso handiak egin ditu arrakala horren mugaketa enpirikoa gauzatzen.

Gaur egun gehiago dakigu emakumeek finantza-erakundeekin dituzten harremanen izaerari eta irismenari buruz. Hala ere, oraindik ere muga metodologiko asko daude, finantzetan dagoen genero-desberdinkeria benetako irismena argi eta garbi baloratzea galarazten dutenak.

Garapen-bidean dauden ekonomietan emakumeek duten egoerari buruz dakigunak desberdintasuna modu sistematikoan egiaztatzeko aukera ematen du, baina pentsatzekoa da **iparraldeko gizarteetan** dagoen genero-arrakala hori pixkanaka ixten joan dela, zerbitzu horiek eskuratzeari eta erabiltzeari dagokionez behintzat. Are gehiago, esaten da arrakala hori ez dela existitzen. Hala ere, ez da beharrezkoa begirada asko doitzea azterketa horietan generoan oinarritutako tratu diferentzialaren ebidentziak modu sotilagoan identifikatzeko.

2014ko azterlanak EAEko finantza-zerbitzuekin emakumeek duten harremanari eragiten dioten faktore batzuk identifikatu zituen. Azterlanaren mugez jabeturik —haren emaitzak oso errealitate konkretu batera mugatuta daude—, orduan erabaki genuen lehenetsasuna ematea testuinguru horrek desberdinkeria hori egiaztatzeko datuak aurkitzea zailagoa den eremu ilun bat gurutzatzen saiatzeko ematen zigun aukerari.

Komeni da gogoratzea bai 2014. urtean, bai 2024. urtean lortutako emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoko populazioarena direla. Biztanleria horrek finantza-inplikazio txikia du, eta, oro har, finantzei dagokionez kontserbadorismo handia. Horrek arrisku finantzarioarekiko ezinikusi handia dakar berekin. Halaber, biztanleen zati handi batek bankuekiko mendekotasun handia dute finantza-aholkularitza bilatzeko orduan. Profil finantzario baxu hori ezaugarri komuna da herritarren artean, eta nabarmena da bai emakumeetan bai gizonetan. Hala ere, azterketa horrek ondorio batzuk atera zituen, eta, horien arabera, 2014. urtean, finantza-sektorean generoaren arabera zenbait ezberdintasun daude, emakumeekiko harremanetan eta tratuan eragiten dutenak.

Autonomia-mailari dagokionez, ikusi zen, nahiz eta hasiera batean generoa faktore diskriminatzailea ez izan, bai bihurtzen dela faktore diskriminatzaile produktu jakin batzuetarako sarbidearen eta erabileraren azterketan generoaren aldagaia sartzen dugunean. Diru gutxien irabazten duen pertsona izateak autonomia handia kentzen die etxeko finantza-

erabakiak hartzeko garaian. Ebidentzia horrek agerian utzi zuen, halaber, emakumeen desabantaila-egoera; izan ere, emaitzek erakusten dutenez, ez da hain ohikoa emakume horiek bikotekidearekin bizi direnean kideak baino diru-sarrera gehiago izatea. Emakumeen kasuan, gizarte- eta lan-egoera negatiboagoa ere finantza-arloko desberdintasunaren baldintzatzaile gisa identifikatu zen.

Era berean, azterlan horren arabera, finantza-erakundeek tratu desberdina ematen diete gizonei eta emakumeei, eta tratu hori ez da mezuak sinplifikatzean edo hurbiltasuna areagotzean oinarritzen. Emaitzek erakutsi zuten maileguen emate-maila, adibidez, antzekoa izan zela gizonen eta emakumeen artean. Hala ere, egiaztatu ahal izan zen finantzaketa lortzeko garaian haien arteko autopertzepzio desberdinean zeudela ezberdintasun nagusiak. Emakumeen artean negatiboagoa zen, eta hori izan ohi zen beren burua baztertzeko arrazoi nagusia. Egiaztatu ahal izan zen, halaber, kreditua eskuratzean gizonek kapital bolumen handiagoa lortzen zutela eta, egoera berean, baldintza hobeak.

Emaitzak zuhertasunez aurkeztu ziren, nahiz eta ziur egon tratu desberdin horren ebidentziak etorkizunean ere ikertu behar zirela.

Hamarkada bat geroago, desberdinkeria aurre egiten dioten eta horren kontra egiten duten prozesuei buruzko ikerketek garrantzi gutxi eta mugatua dutenez, berriro egin genuen proiektu hau 2014. urtean abian jartzea eragin zuen galdera: finantza-erakundeekiko harremanean, emakumeei tratu desberdina ematen zaie? Desberdintasun-sare horietan harrapatuta jarraitzen dugu? Nola gaude hamar urte geroago?

Kezka horiek oinarri hartuta, bigarren azterlan bat egiteko egokitasuna baloratu dugu, EAEn 2014. urtean egindakoaren planteamendu metodologiko berarekin. Azterketaren ikuspegi potentziala zehazten zuten zenbait testuinguru-elementu ere sartu dira, hamar urteko aldi horrek 2024an elementu bereizle gisa ekarri duena kontuan hartuta.

Finantza-bazterketa da oraindik ere bazterketaren ardatz nagusietako bat populazioaren ehuneko handi batentzat. Europako herrialde gehienetan, pertsona askok zailtasunak dituzte merkatu konbentzionaleko finantza-zerbitzuak eskuratzeko eta/edo erabiltzeko.

Halaber, bere horretan jarraitzen dute kolektibo jakin batzuei banku-kontu bat irekitzeko edo ireki ondoren eragiketak egiteko bankuek jartzen dizkieten zailtasunak.

Espainian, 19/2017 Errege Lege Dekretuak finantza-eskubide hori eskuratzea arautzen du, eta banku-erakundeak oinarritzko ordainketa-kontuak ematera behartzen dituzten oinarri juridikoak finkatzen ditu, baita "egoitza-baimenik ez duten baina arrazoi juridikoengatik edo egitatezko arrazoiengatik kanporatzea ezinezkoa duten" pertsonen ere. Hala ere, finantza-erakundeek eskubide hori emateari uko egiten jarraitzen dute, Kapitalen zurriztearen prebentzioari buruzko Legean¹ oinarrituta. Lege horrek ezartzen du, kontu hori irekitzeko, bezeroak dokumentu "fedemaileen" bidez identifikatu behar direla eta haien diru-sarreraren jatorria frogatu behar dutela. Batzuk atzeritarren administrazio-egoera erregularrari buruzko baldintzak eskatzen ari dira, esaterako, egoitza-txartela aurkeztea, eta egoera ekonomikoari buruzko baldintzak, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen soilik eragiten dietenak. Adibidez, Atzeritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ), lan-kontratua edo diru-sarreraren iturria zehaztea eskatzen dute.

Nahiz eta banku-erakundeek oinarritzko kontuetarako sarbidea ez mugatzeko betebeharra izan, praktikan eragozpenak sortzen ari dira, eta, batez ere, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen, egoitza-baimenik ez duten edo baimen iraungiak dituzten atzeritarrei, dokumentaziorik gabeko pertsonen edo judizialki ezgaitutako pertsonen eragiten diete.

Erakunde batzuek ez dute onartzen Gobernuak emandako dokumentuen baliozkotasuna, hala nola nazioarteko babes-eskaeraren gordekina edo asilo-eskatzailearen txartel ofiziala, pertsonen nortasuna eta Espainian duten administrazio-egoera erregularra egiaztatzen dutenak.

Oro har, literaturan etengabe agertzen dira ebidentziak, maila globalean eta, bereziki, European finantza-bazterketaren maila handitu egin dela frogatzeko. Finantza-bazterketa gizarte-bazterketaren dimentsio garrantzitsuenetako bat bihurtu da, ez bakarrik garapen-bidean dauden herrialdeetan, baita

ekonomia aurreratuetan ere. Hain zuzen, kezka gero eta handiagoa izan da azken bi hamarkadetan, batez ere, ekonomia aurreratuen ingurune sozialean finantzak harreman ekonomikoen zati handi bat definitzen duela egiaztatu ondoren. Bazterketa finantzarioa gizarte-bazterketaren agerpen argienetako bat da. Horregatik, 2024ko Genero Desberdinkeriei eta Finantzei buruzko txostenaren berrikuspen honetan, kezka horren esparruan txertatu nahi izan dugu hausnarketa. Genero-desberdinkeriak, kasu askotan, egitura sozioekonomikoetan estereotipoek nola jarduten duten kontuan hartuta azaltzen dira, eta azpimarratu behar da estereotipo horiek emakumeentzat duten benetako emaitza finantza-bazterketa jakin batekin lotuta dagoela: sarbidean, baldintzetan, prezioan eta/edo tratu bereizian eragiten du.

Genero-desberdinkeriak finantzetan duen eragina eta horrek emakumeengan dituen ondorio errealak kontuan hartuta ere, gaur egun esan dezakegu, hamar urte geroago, horretaz kontzienteagoak garela eta desberdintasun horren konplexutasunari buruzko definizio-maila handiagoa dugula.

– Duela hamar urte baino gehiago dakigu finantza-bazterketari buruz

Lehenik eta behin, finantza-bazterketa zer den hobeto definitu eta zehaztu dugu. **Finantza-bazterketa beharrezko finantza-zerbitzuak modu egokian eskuratzeko ezintasun gisa definitu da, dela prezio-arrazoiengatik, dela sartzeko betebeharrengatik, dela eskaintza-urritasunagatik, gizarte-bazterketagatik edo autobazterketagatik.** Era berean, hainbat bazterketa mota definitu dira, eta, horri esker, sakonago uler daitezke fenomeno horren izaera eta horri aurre egiteko aktibatu daitezkeen neurri zehatzak. Azterlan honetan, dagoen literaturaren arabera, finantza-bazterketa mota hauek identifikatu ditugu gutxienez:

- **Sarbidean baztertzea**, finantza-zerbitzu batean sartzeko bezero izan daitezkeen arisku-profilarekin lotuta.
- **Egiturazko bazterketa**, pertsona eta/edo talde jakin batzuk finantza-produktu jakin batzuk eskuratzeko eta erabiltzeko desabantaila-egoeran jartzen dituzten arauak, erakundeen eta abarri dagokienez.
- **Baldintzengatik baztertzea**, finantza-zerbitzu jakin batzuk lortzeko eskatzen diren kontratuko baldintzak betetzeko zailtasun eta/edo mugekin eta/edo ezintasunarekin lotutakoa.

¹ -304/2014 Errege Dekretua, maiatzaren 5koa, kapital-zurriztearen eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen Erregelamendua onartzen duena (BOE, 110. zk., 2014ko maiatzaren 6koa). <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2014-4742>

- **Prezioengatik baztertzea**, zerbitzu finantzarioen kostua bere gain hartzeko zailtasun eta/edo mugekin eta/edo ezintasunarekin zerikusia duena.
- **Marketineko bazterketa**, produktu edo zerbitzu jakin batzuk eskaintzen zaizkion xede-taldeko kide ez izatearekin zerikusia duena.
- **Nork bere burua baztertzea**, gizabanakoek produktu finantzarioak eskatzeari uko egitea, ez zaizkiela emango uste izateagatik. Are gehiago, gero eta pertsona gehiagok beren burua baztertzen dute zenbait finantza-zerbitzuren erabileratik.

– **Duela hamar urte baino gehiago dakigu finantza-bazterketak funtzionatzen duen moduari buruz**

Bazterketak nola eragiten duen, desberdinkeria nola sortzen den eta desberdinkeria hori kolektibo batzuen kasuan diskriminatzailetzat nola har daitekeen erakusten duten ebidentzia gehiago ditugu. Era berean, intersektionalitatearen ikuspegia txertatzeari behin eta berriz ekiteari esker, hobeto ulertu ahal izan da haren konplexutasuna.

EAPNren azterlan baten arabera (Malesini eta Sánchez, 2021), badira ezaugarri ekonomiko, hezkuntzako, sozial, kultural eta geografiko sozialak, biztanleriaren zati handi bati finantza-zerbitzuak eskuratzea eta eskatzea galarazten dutenak. Banku-sektorearen eragiketak berak merkatuko zenbait pertsona-talde baztertzen ditu, edo praktika espezifikoek bidez zigortzen ditu. Erakundeek kontrolarekin, haien jardueren gardentasunarekin, publizitate engainagarriarekin eta erregulazioekin lotutako akats instituzionalak daude, eta horiek finantza-zerbitzuen hornidura desitxuratzen dute, lege-mugan dauden zenbait praktika ahalbidetzen baitituzte. Horrek guztiak laguntzen du finantza-bazterketa konplexua eta egiturazkoa dela egiaztatzen.

– **Ezagutza eta kezka handiagoa dago adimen artifiziala bazterketa gauzatzen duen tresna gisa erabiltzeak dituen ondorioei buruz.**

Finantza-zerbitzuak aspalditik izan dira aitzindariak finantza-arloan. **Redlining** edo **profiling** terminoak, adibidez, algoritmo prediktiboek erabiltzen dituzten estrategiei dagozkien, errentagarritasun txikia, nulua edo arrisku-maila handia izatea espero den profilei zerbitzuak ez ematea aholkatzeko: soldata edo pentsio txikiak dituzten pertsonak, kotizazio gabeko pentsioak edo larrialdiko errentak dituztenak, diru-sarrera egonkorrik gabeak. Auzo behartsuetan bizi diren pertsonak, guraso bakarreko etxeak, etorkinak, adinekoak, klase apalekoak edo ertain-baxukoak,

etorkinak eta errefuxiatuak (Malgesini eta Sánchez, 2021). Tresna horiek sortzen dituzten emaitzen ondorioz, pertsona askoren bizitzan ondorio oso larriak dituzten portaerak sortzen dira: finantza-zerbitzuak ukatzea, merkatuaren ginetik interesa duten kredituak eskaintzea, batezbesteko bezeroentzat baino eskakizun handiagoak, neurritz kanpoko komisio eta eskakizunak, era unilateralean kontuak ixtea, etab.

– **Finantza-ondasun eta -zerbitzuak eskuratzeko eskubideak babesten dituen araudi zehatzagoa dugu.**

Paradoxikoki, gaur egun, eta 2014ari dagokionez, zehaztasun handiagoa dago zerbitzu finantzarioetan sartzeko eta tratatu berdina emateko araudian. Eskubideak babesteko esparru horrek, besteak beste, segurtasun eta babes juridiko handiagoa emateaz gain, finantza-esparru horretan diskriminazioaren aurkako neurriak ezartzeko sistemak dauden arraildurak erakutsi ditu. Besteak beste, aipatu dugun moduan, erraztasunak eman ditu kapital zuriketari buruzko araudiak eragiten dien eta finantza-erakunde batean kontu korrantea irekitzeko oztopo larriak dituzten pertsonen ahultasun ekonomikoa frogatzeko beharra ulertzeko. Hala ere, nahiz eta bankuek oinarritzko kontuetarako sarbidea ez mugatzeko betebeharra izan, praktikan eragozpenak sortzen ari dira.

Ezagutza eta errealitate horretatik abiatuta, genero-desberdinkeria eta finantzei buruzko txosten hau hiru bloke handitan egituratu dugu.

Lehenik eta behin, finantza-arloko genero-desberdinkeria buruz literaturak erakusten dituen ebidentziak erakutsi nahi izan ditugu. Azterketaren lehen zatian, finantza-ongizatearen pertzepzioari dagokionez dagoen genero-arrakalaz gain, emakume ekintzaileentzako finantziazioan eragin dezaketen faktoreak azaldu dira. Lehenengo atal horren amaieran, maileguen eskaera simulatu den kasu-azterketa bat aurkeztu da, Euskadiko errealitatearen baldintzak eta testuingurua kontuan hartuta.

Bigarrenik, finantza-ondasun eta -zerbitzuak eskuratzeari buruz indarrean dagoen arau-esparrua azaltzen da, berdintasun- eta diskriminaziorik ezaren printzipioari dagokionez. Printzipio horretan, besteak beste, sexuagatiko diskriminazioa debekatzen da. Gainera, txostenaren atal honetan, diskriminazioaren aurkako eskubidearen esparrutik abiatutako azterketa juridikoa aztertzen da, bai eta teknologia berrien eta adimen artifizialaren esparruan diskriminazioa debekatzea ere.

Hirugarren multzoa Txostenaren hirugarren eta laugarren ataletan garatzen da. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoan 2024an biztanleei egindako inkestaren diseinua eta emaitzak aurkezten dira. Helburua da emaitzek 2014az geroztik izan duten bilakaera aztertzea. Helburua izan da erakustea **1) genero-desberdinkeria horiek, gehienetan, estereotipo nagusietan oinarritzen direla, eta 2) estereotipo horiek eragina dutela eta baldintzatu egiten dituztela emakumeek finantza-erakundeekin duten portaera.**

Azterlanaren ondorio orokorra da, emakumeen kasuan, estereotipo horiek eragiten duten emaitza erreala finantza-bazterketa jakin batekin lotuta dagoela, eta horrek modu desberdinean eragiten du finantza-erakundeekin harremanak izateko moduan.



1. Genero-desberdinkeriak finantza arloan: zer aldatu da azken hamarkadan?

2014. urteko azterketa 2024. urteko honen aurrekaria da. Finantza-arloan genero-desberdinkeriak irauten duela egiaztatu eta ikusaraztea izan zuen helburu.

Orduan, haien arrazoiak ulertzeko eta egoera hori aldatzeko neurriak aktibatzeko interes orokorra eta borondate politikoa azpimarratu genituen. Diskriminazioaren aurkako esparru juridikoa indartzeari egiten genion erreferentzia, une hartan emakumeendako berdintasun-maila handiagoetara joateko bide ematen zuen ardatzetako bat baitzen. Gaur egun ere zilegi da argudio berak erabiltzea finantza-arloan genero-desberdinkeriaren aurkako borrokan etengabe aurrera egin dela baieztatzeko.

Diskriminazioaren aurkako esparru sendo baten ahaleginak, interesa, kezkak eta sendotasuna egiaztatzen jarraitzen dugu.

Hain zuzen, finantza-arloan genero-arrakalari buruzko ikerketa zehazten joan den moduan nabarmentzen dira egindako aurrerapenak. Horri esker, hobeto ezagutu ahal izan dira haien izaera eta ezaugarriak. Hamar urte geroago, desberdinkeria hori benetakoa izatearen pertzepzioak bere horretan jarraitzen du, eta indartu egin da, desberdinkeria nola eta zergatik gertatzen den erakutsi nahi duten azterlanen mugaketa metodologikoan hobekuntza nabarmena egin delako. Akademiak bereziki arreta handia jarri dio gai horri. Azken urte hauetan, hauek lortu dira: gehiago eta hobeto neurtzea;

hainbat lanketa mugatu eta konbinatzea; finantza-arloan genero-desberdinkeria esplizituagoa duten esparruak zehaztea; genero-arrakala horren adierazpenen aldaketak identifikatzea, etab. Gainera, esan dezakegu aurrera egin dela, ezagutzen ez ezik, eremu politikoan agenda bat lantzeko interesean ere, finantza-ondasun eta -zerbitzuak eskuratzeko eta erabiltzeko desberdintasunak emakumeengan dituen ondorioak arintzeko.

Hala ere, aurrerapen horiek gorabehera, oraindik ere muga garrantzitsuak daude, eta horrek zaildu egiten du finantza-arloko genero-desberdinkeriari buruzko datuak eta analisiak horri aurre egiteko ekintza politiko zehatzekin lotzea.

Gai horri dagokionez, aurrerapenak ez dira hain nabarmenak izan. Alde batetik, egonkortasuna, erregulartasuna eta jarraipena ematea falta da genero-arrakala buruzko ikerketa globalari.

Zenbait esparrutan (finantzetan, esaterako) dagoen genero-arrakalaren ikuspegi osoa ematen duten epe luzeko datu egonkor oso gutxi daude, eta horrek zaildu egiten du neurri politikoaren koherentzia eta jarraitutasuna edo gizarte- eta kultura-aldaetako aurrerapenak.

Bestalde, desberdintasun hori aztertzea konplexua eta zaila da, zenbait faktoreekin estu lotuta agertzen baita, hala nola diru-sarrerekin edo egoera ekonomikoarekin, eta oraindik ezagutza mugatua dago horien inguruan. Frogatuta dago, adibidez, emakumeek batez beste gizonek baino diru-sarrera txikiagoak dituztela bizitzan zehar, nahiz eta beti ez den hala izaten. Litekeena da, halaber, emakumeak izatea diru-sarrera gutxien dituztenak gizonezko bikotekidearekin bizi direnean. Badirudi emakumeek beretzat edo beren etxerako hartzen dituzten finantza-erabakietan desberdintasunak daudela. Haien lehentasun ekonomikoak ere desberdinak direla dirudi, bikotekidearen diru-sarrerak gorabehera. Oro har, literaturak genero-desberdinkeria esanguratsuak nabarmentzen ditu finantza-jarreran, eta desberdinkeria horien arrazoiak justifikatzeko kultura- eta gizarte-faktoreak aipatzen ditu, edo emakumeen egoera ekonomikoak beste faktore batzuekin duen erlazioa, hala nola hezkuntzarekin, osasun-zerbitzuak eskuratzearekin eta/edo lan-merkatuan parte hartzearekin (Nanadan eta Fernández, 2017). Hala ere, hipotesiak ez dira erabat baieztatzen, eta emaitzak gutxitan dira erabakigarriak. Ikerketak aurrera egin ahala, aldagai esplikatzaileen kopurua handitzeaz gain, aldagai horietako bakoitzak analisian zailtzea eragiten du.

Hamarkada bateko aurrerapenei esker, esan bezala, ondoriozta dezakegu genero-arrakalaren arrazoiari buruzko ulermena mugatua dela oraindik ere.

2014. urtean, finantza-zerbitzuak eskuratzeko eta erabiltzeko genero-desberdinkeria berresten duten ikerketen datuak eman genituen. 2024an, zenbait emaitza berreskuratu nahi izan ditugu, finantza-arloan genero-arrakalak bere horretan jarraitzen duela erakusten duten datuen mugak behin eta berriro azpimarratzen dituen narratiba hori zalantzan jartzen laguntzen dutenak. Gure helburua generoari eta finantzei buruzko zenbait ikerketa-

gaitan emaitza orokorrenak identifikatzen saiatzea izan da, nabarmentzeko ezen genero-aldagaiari lotutako desberdintasunaren zuzeneko eta zeharkako dimentsio anitz eta konplexuak egon arren, literaturak argi erakusten duela genero-arrakala dagoela adierazle jakin batzuetan, adierazle horien jatorria emakumeek finantzekiko harremanetan duten portaerari buruzko genero-estereotipo nagusiak direnean. Zehazki, hiru azterketa-ardatzetan jarri dugu arreta.

Lehenik eta behin, finantza-gaitasunekin eta -ongizatearekin lotutako genero-desberdinkeriei buruzko literatura berrikusi da. Emakumeek finantza-gaietan ezagutza, trebetasun edo trebetasun gutxiago izatearen sineskeria dago, edo haien finantza-ongizateari buruzko pertzepzioa ez dela gizonena bezalakoa. Hala ere, ikerketak ezin izan du ondorioz atera diferentzia hori benetan dagoela baieztatzeko edo horren arrazoiak azaltzeko. Genero-estereotipoek gai horietan nola funtzionatzen duten eta emakumeen eta finantza-erakundearen arteko harremana nola baldintzatu dezaketen sakon aztertzen duen azterketarik ez dago ia. Hau da,

badakigu desberdintasunak estereotipoen ondorio direla, baina badago egiaztapen horretatik harago ez joatearen aldeko inertzia bat, estereotipo horiek nola jarduten duten eta duten efektu erreala identifikatzeko.

Bigarrenik, emakume ekintzaileek finantzaketa lortzeko dituzten mugei buruzko ebidentziak eman nahi izan ditugu. Ikerketek argi eta garbi erakusten dute aukera gutxiago dutela enpresa-proiektu bati ekiteko edo aurrera egiteko finantziarioa lortzeko. Desabantaila hori azaltzen duten motiborik nabarmenenek ere zerikusi zuzena dute arau sozial eta kultural nagusietako estereotipoekin.

Hala, alde batetik, genero-desberdinkerien inguruko gune komun batzuk desmuntatu nahi izan ditugu. Bestetik, finantziarioa atzitzeko nahiz erabiltzeko zailtasun hori esanguratsua den eremuak nabarmendu nahi izan ditugu. Amaitzeko, garrantzizkotzat jo da kreditu-emakidaren simulazioan oinarritutako kasu-azterketa bat sartzea, Euskadiko gizartearen errealitate jakin batean jokoan dauden elementuak erakusteko, eta generoa, adina eta antzeko aldagaiak sartzen direnean dituzten ondorioak azaltzeko.

Ondoren, hiru ardatz horietako bakoitzari heldu diogu, eta azpimarratu dugu, askotan, ez dela [soilik] ez jakitea edo ez dela [soilik] finantza-zerbitzu jakin batzuk eskuratu edo erabili nahi izatea, baizik eta, batez ere, pertzepzio desorekatua dela, botere-egituren sare konplexu baten bidez artikulatzen diren estereotipoetan oinarritua dagoela, eta, horren ondorioz, desberdintasuna, diskriminazioa eta bazterketa eragiten dituela.

1.1 Ez da [soilik] jakintza izatea, pertzepzio desorekatua ere bada: genero-desberdinkeriak finantza-eskumenekiko eta finantza-ongizatearekiko

- *Genero-arrakala finantza-eskumenetan?*

Nolabaiteko adostasunez onartuta dago, dagoeneko leku komun bihurtu dena, finantza-arloko genero-desberdinkeriak azaltzen dituen arrazoietakoa bat finantza-eskumenen maila desberdina izateagatik gertatzen dela. Hipotesiaren arabera, emakumeen finantza-kulturaren maila txikiagoa faktore baliagarria izan daiteke genero-arrakala horren arrazoiak azaltzeko.

Hipotesi hori Espainiako testuinguruan aztertzeko, Espainiako Bankuak zenbait herrialdeko populazioaren finantza-ezagutzen maila buruzko azterketa konparatibo baten emaitzak aurkeztu zituen 2021ean. Espainiak hamalagarren tokia zuen gizonen finantza-ezagutzen sailkapenean, eta hogeigarren postura jaisten zen emakumeen kasuan. Azterketa osatzeko, 2016. urtean egindako Finantza Gaitasunen Inkestako datuak eta gizon eta emakumeen finantza-ezagutzen mailak azaltzeko beste azterlan batzuk jaso ziren (Hospido et al, 2021). Desberdintasun horien azalpenari buruzko adostasunik ez dagoen arren, analisiak zenbait aldagai bereizi ahal izan dituzte, biak bereizten dituela dirudien ildo hori argiago zehazten dutenak.

Ezaugarri soziodemografikoak nabarmendu dira finantza-ezagutzetan dagoen genero-arrakala azaltzeko faktore gisa. Hala ere, Espainiako Bankuaren txostenaren emaitzek ez dute aukerarik ematen irizpide horri jarraiki dauden genero-arrakalak behar bezala azaltzeko. Hezkuntza-maila, jaioterria, adina edo errenta gizonen eta emakumeen artean

antzekoak direnean, ez da hipotesi hori bermatzen duen alderik ikusten.

Finantza-zerbitzuak eskuratzeko genero-desberdinkeriak eta horien bilakaera aztertzeko orduan, txosten honek aurkitu duen zailtasunetako bat finantza-eragiketen eremuan teknologia digitalak zabaltzearekin lotuta dago. Gero eta maizago, finantza-eragiketak, baita oinarritzkoenak ere, aplikazio informatikoen bidez egiten dira. Diskriminazio arriskuei (eta eskubideak urratzeari) dagokienez, teknologia berriak hedatzeak dakarren lehen arazoa da gardentasun falta eta erantzukizunaren egozgarritasun falta (ingelesez **accountability** deritzona).

Dagoeneko onartzen da teknologia digital berriak gero eta gehiago aplikatzeak desberdinkeriak bultzatzen dituela. Aspaldi salatu izan da teknologia ez dela neutrala edo objektiboa, gizartearen nagusitzen diren arraza-, etnia-, genero- eta bestelako desberdintasunek konfiguratu dutela, eta, gainera, desberdinkeria horiek okerragotu egiten dituztela. Opakutasuna gorabehera, hainbat azterketa eta txostenek erakusten dute, egiturazko edo intentziozkoak ez diren joerak alde batera utzita, algoritmoek diskriminatu egiten dutela, enpresek diskriminazioaren onura aktiboa jasotzen duten ekonomia- eta negozio-ereduen gainean funtzionatu dutelako; horregatik, gobernu eta enpresa askok "talde baztertuak estrukturalki diskriminatzen dituzten" algoritmoak hartzen dituzte¹².

Europa informazioaren teknologia berrien eta adimen artifizialaren erregulazioaren lehengo lerroan jarri da, nahiz eta oraindik ere arau-esparru hasiberri eta zatikatuan gauden, non teknologia berrien erabilerak oinarritzko eskubideetan, demokrazian edo gizarte-justiziaren hainbat alderditan duen eta izan dezakeen inpaktuarekiko kezka oraingoz ez baitu berme sendorik. 2022ko abenduan, Europako Parlamentuak eta EBko Kontseiluak 2030eko Hamarkada Digitalerako Programa Estrategikoa ezartzen duen Erabakia hartu zuten¹³. Erabaki hori **Eskubide eta Printzipio Digitalei buruzko Adierazpenean**¹⁴ oinarritu behar da, 2022ko abenduaren 15ean onartu zen, eta honako hauek aipatzen ditu, besteak beste: subiranotasun digital irekia, oinarritzko eskubideak errespetatzea, Eskubide-estatua eta demokrazia, inklusioa, irisgarritasuna, berdintasuna, jasangarritasuna, erresilientzia, segurtasuna, bizi-kalitatea hobetzea, zerbitzuen eskuragarritasuna eta pertsona guztien eskubide eta aspirazioak errespetatzea.

Europako eztabaidarekin bat etorritik, Espainiak Espainiako Agenda Digitala 2026¹⁵ sartu zuen 2021eko Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren ardatz digital gisa. Urte horretako uztailan, Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioko Digitalizaziorako eta Adimen Artifizialerako Estatu Idazkaritzako Adituen Talde Aholku-emaileak egindako lana oinarri hartuta, Eskubide Digitalen Karta¹⁶ bat egin zen. Dokumentu horrek, arau-baliorik ez duela onartzen badu ere, eskubideak ingurune digitalera egokitzeak planteatzen diren erronka berriak deskribatzeko, aztertze eta adierazpenerako helburua lortu nahi du. Ildo horretatik, Espainiako estrategia digitalak "**sandbox** erregulatzailerik" ¹⁷ gisa postulatu du gure herrialdea etorkizuneko adimen artifizialaren Europako Erregelamendua ezartzeko.

12- Errelatore Bereziaren txostena, arrazismoaren gaur egungo formei, arraza-diskriminazioari eta sortzen ari diren teknologia digitalei buruzkoa: giza eskubideen azterketa (A/HRC/44/57), 2020ko ekainaren 18a.

13- 2022ko abenduaren 14ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/2481 (EB) Erabakia, 2030erako Hamarkada Digitalaren programa estrategikoa ezartzen duena. Linean, hemen eskura daiteke: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2022-81885>

14- Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen adierazpen komuna (2023/C 23/01), Hamarkada Digitalerako Eskubide eta Printzipio Digitalei buruzkoa. Linean, hemen eskura daiteke: [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32023C0123\(01\)](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32023C0123(01))

15- España Digital 2026 (2021). Linean, hemen eskura daiteke: https://www.lamoncloa.gob.es/presidente/actividades/Documents/2021/140721-Carta_Derechos_Digitales_RedEs.pdf

16- Eskubide Digitalen Karta (2021). Linean, hemen eskura daiteke: https://www.lamoncloa.gob.es/presidente/actividades/Documents/2021/140721-Carta_Derechos_Digitales_RedEs.pdf

17- Sandbox erregulatzailerik ingurune kontrolatu bat da, non sektore teknologikoko bitartekariak eta operadoreak, horretarako ezarritako agintariak zainduta, denboraldi mugatu batean teknologikoki berritzaileak diren produktuak eta zerbitzuak probatzeko aukera duten. Eredu informatikoan, sandbox bat (jatorrian, espazio mugatu bat da, edo hondarrez betetako kaxa bat, haurrek jolas egin dezaten), batzuetan "kaiola" izenarekin ezagutzen dena gaztelaniaz, segurtasun-prozedura bat da, eta ingurune isolatu bat sortzen du sistema eragile baten barruan, programak modu seguru eta kontrolatuan egin ahal izateko, sistemaren gainerakoa arriskuan jarri gabe.


Hala ere, ez Eskubide Digitalen Gutunak, ez Espainia Digitala 2026 agendako beste osagai batzuek ez dute erreferentzia zehatzik egiten ingurune digitaletako diskriminazioaren erregulazioaren berezitasunei buruz, eta berdintasun-printzipioa eta diskriminazioaren debekua errepikatzen mugatzen dira.

Diskriminazioaren aurkako araudian, joan den urteko uztailan onartutako TBDELek arreta berezia jarri zuen teknologia berriak, informazioaren teknologiak eta adimen artifiziala erabiltzeak ekar ditzakeen diskriminazio moduetan. Hala ere, ikusiko dugunez, arau horiek ematen duten babesa zatikatuta dago eta ez da nahikoa.

TBDELren 23. artikulua behartu egiten ditu administrazio publikoak erabakiak hartzeko erabiltzen diren algoritmoek alborapenak minimizatzeko, gardentasunerako eta kontuak emateko irizpideak kontuan har ditzaten mekanismoak abian jartzera. Garrantzi gutxiko hizkeraz gain (mekanismoak abian jartzen laguntzea), arauak ihes egiteko bide nabarmena uzten du Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionalan, Eskubide Digitalen Gutunean eta Europako ekimenetan (batzuk oraindik hartzen ari direnak) ezarritako betebeharrak betetzen direla bermatzeko mekanismo horiek teknikoki egingarriak direla uste izatearen mende. Berme-mekanismo horiek teknikoki posible ez badira eta, beraz, erabilitako algoritmoek joera diskriminatzaileetan eragiten badute, gardentasunik gabe edo kontuak ematea eragotziz, ez da ekintzarako jarraibiderik adierazi. Gainera, artikulua horretako 1. eta 2. atalak administrazio publikoei bakarrik dagozkie. Enpresen (tartean, finantza-erakundeen) aipamen bakarra 23. artikuluko 3. paragrafoan dago eta honakoa ezartzen du: “adimen artifizial etiko, fidagarri eta oinarritzko eskubideak errespetatzeko gai denaren erabilera sustatuko dute, eta, horretarako, Europar Batasunaren gomendioei jarraituko diete bereziki”.

Halaber, informazioaren eta komunikazioaren teknologien enpresek, finantza-erakundeei zerbitzu eta soluzio teknologikoak eskaintzen badizkiete finantza-erakundeek eskaintzen dituzten ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko, TBDELren 22. artikuluan aipatzen dira eta eskatzen zaie “tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eta intolerantziaren arloko legedia betetzen laguntzeko, lege honen oinarri diren arrazoiengatik, eta pertsona eta biztanleria-talde ezberdinen estereotiporik gabeko irudia sustatzeko, salmenta- eta publizitate-jardueretan barne”.

También las empresas de tecnologías de la información y comunicación, que potencialmente ofrecen a las entidades financieras servicios y soluciones tecnológicas que inciden en el acceso de la población a los bienes y servicios ofrecidos por las entidades financieras, están llamadas en el Artículo 22 de la LIITND a contribuir “al cumplimiento de la legislación en materia de igualdad de trato y no discriminación e intolerancia por las razones que inspiran esta ley, y a la promoción de una imagen no estereotipada de las diferentes personas y grupos de población, incluyendo las actividades de venta y publicidad”.



3. Desberdinkeria-sareak finantza-erakundeekiko harremanetan

Genero-kategoriak finantza-arloan duen tratamendu desberdina erakusteko helburua bi azterketa-ardatzetan zabaldu da orain arte: lehenengoan, nabarmendu nahi izan da nola egituratzen den genero-desberdinkeria sare hori finantza-sistemako erakundeetan, eta zein oinarriren gainean eraiki den: genero-estereotipoek baldintzatzen dituzte emakumeen eta finantza-erakundeen arteko harremanak. Estereotipo horien izaera eta jarduteko modua desberdinak dira. Hala ere, kasu guztietan balio dute desberdintasuna justifikatzeko. Azterketa honen lehen ataleko ibilbidearen bidez, desberdintasun-sare hori handitzen edo murrizten laguntzen duten mekanismo, prozesu eta harremanetako batzuk zein diren erakutsi nahi izan dugu.

Bigarren kapituluari, finantzen arloko ondasun eta zerbitzuetarako sarbidean emakumeen eskubideak babesten dituen diskriminazioaren aurkako arau-esparrua aurkeztu da era sintetikoan. Atal honek garrantzi berezia du desberdintasun-sare horiek ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko eta erabiltzeko orduan emakumeen berdintasuna formalki babestuta dagoen testuinguruetan ehuntzen direla erakusten baitu. Hori da, hain zuzen ere, analisiaren konplexutasuna azpimarratzera garamatzana, eta azterketa hori hurbilketa metodologikoetatik lantzearen beharra erakusten duena, emaitzen neurketa kuantitatibo hutsetik haratago, egituretan eta egitura horiek gure harremanak moldatzen dituzten moduan oinarritutako logika sotil batek sostengatzen baitu sare hori.

Azterketa amaitzeko, helburu berberak dituen azterlan enpiriko bat egin da, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2014. urtean, finantza-sektoreko genero-desberdinkeriei buruz egindako azterlanaren datuak eguneratzeko. 2024an egindako azterketa enpiriko horren helburuak, hipotesiak eta emaitzak txosten honen hurrengo bi ataletan aurkezten dira.

2014. urtean planteatutako hipotesiak berrikusi ondoren, planteatutako ikuspegi berari eustea egokia dela egiaztatu dugu, eta, horretarako, emakumeen eta finantza-erakundeen arteko harremanean inplizituki gertatzen diren prozesuei eta mekanismoei buruzko aurrerapenak identifikatzen saiatu gara. 2024ko helburua, beraz, zenbait prozedura, harreman, prozesu eta aurreiritzi erreferentzia gisa hartzea izan da, nola jarduten duten eta, nola edo hala,

desberdintasunik sortzen duten ikusteko. Finantza-arloko genero-desberdinkeria horiek haratago doazela egiaztatzen abiatzen da, eta biztanleriaren, emakumeen eta gizonen, eta finantza-erakundeen arteko harremanera zabaltzen dira.

Azken alderdi hori da, zehazki, lan honetan garatzen dena, eta, gainera, esan bezala, errealitate sozioekonomiko oso zehatz batean kokatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan, zeina, txikia izan arren, ekonomia “garatu” deritzen testuinguruan baitago. Testuinguru horietan, emakumeen eta finantza-erakundeen arteko harremanetan (eta alderantziz) hautematen da genero-desberdinkeria horiek ez direla existitzen edo, nolana ere, ez direla funtsezkoak. Baina, aldi berean, pertzepzio hori naturaltasun osoz bizi da emakumeak identifikatzen dituen estereotipo bati erantzuten dion beste pertzepzio batekin. Estereotipo horrek, hain zuzen, honako hauekin identifikatzen ditu emakumeak: finantza-kultura txikiagoa, autonomia ekonomiko txikiagoa, finantza-gaitasun gutxiago, baliabide gutxiago eta abar. Hau da, ez da desberdinkeria onartzen, baina bai, ordea, desberdintasun batzuk.

Azterketa gidatu duen ardatza 2014. urteko bera da: genero-desberdinkeria horiek badiela, egiturazkoak direla eta, batez ere, finantza-arloko genero-estereotipo jakin batzuen efektuari erantzuten diotela dioen hipotesitik abiatzen da. Hain zuzen ere, ezaugarri hori erabiltzen da genero-arrazoiengatik diskriminazioa desegiteko argudio gisa, sistemaren funtzionamenduaren irizpide objektiboak eta egiturazkoak kontuan hartuta.

Horrek bereziki deigarria izaten jarraitzen du; izan ere, errealitate baten aurkako pertzepzio orokorra dago, eta errealitate horrek, hain zuzen, desberdintasuna tratu-desberdinkeria bidegabe bihurtzen du.

Emakumeen egoera sozioekonomikoak berak, baita Euskal Herrian ere, desabantaila-egoeran jartzen ditu finantza-aukerak eta -baliabideak eskuratzeko orduan;

esate baterako, proiektu ekintzaile bat abian jartzeko eta/edo garatzeko finantzazioa eskuratzeari dagokionez, eta hori agerian jarri nahi izan da.

3.1 Desberdinkeria zertan eta zerekiko

Zaila da finantza-arloan genero-desberdinkeria horren oinarrian dagoen harreman-sarea aztertzea, eta genero-desberdintasunak diskriminazioa sortu edo eragin dezaketen desberdinkeria mota bihurtzen diren puntua erakusten duten ebidentziak aurkitzea.

Zenbait azterlanen arabera, finantza-bitartekotzaren arloan genero-desberdinkeria nabarmen bat da pertsona batzuek baliabideak eskuratzeko izan dezaketen diskriminazioaren pertzepzioa. Adibidez, dirua jasotzeko aukera gutxiago izatea da mailegu bat ez eskatzeko arrazoi nagusietako bat. Gure testuinguruan, badirudi bankuen portaerak ez duela justifikatzen emakumeek gizonen baino intentsitate handiagoz diskriminatuta sentitzea zerbitzuak eskuratzeko garaian, baina banku-praktikek, baita emakumeek bankuei buruz duten pertzepzioak berak ere —formalegiak, beren beharretatik aldenduta eta, a priori, guztiontzat ulergaitzak diren eta mesfidantza sortzen duten mekanismoekin—, zenbait finantza-testuingurutan emakumeek beren burua kanpoan utzi dezaketela azal dezakete.

Bestalde, ezin da ahaztu genero-estereotipoek baldintzatu egin dezaketela bankuek emakumeak nola atzematen dituzten. Aipatu dugun moduan, nahiz eta harreman horiek genero-arrazoiengatik finantza-zerbitzuak eskuratzeko oztopo formalik ez duten testuinguruetan gertatu, oro har, emakumeek etxeko eta familiako administrazio ekonomikorako duten gaitasuna onartzeko joera dago, nahiz eta zailtasun handiagoak, interes gutxiago edo negozio “handien” esparruan hori egiteko gaitasun gutxiago dituztela uste den. Estereotipoak eragina izan lezake finantza-erakundeek emakumei informazioa emateko moduan, kantitatean eta kalitatean, finantza-prozesu konplexuak ulertzeko mugak aurrez suposatuz eta haiekiko konfiantza eta interes txikiagoa erakutsiz.

3.2 Azterketaren hipotesia eta metodologia

Oinarri horien gainean, genero-desberdinkeriak finantzatan duen eragina delinearatu joan gara, emakumeek finantza-arloan duten zereginari buruzko azterketek eta txostenek adierazten dituzten faktoreen inguruan, emakumeen autonomia ekonomikoa aldatzen edo eragozten duen desberdinkeria-egoera baten aurrean noiz gauden jakiteko helburuarekin.

Azterlanaren hipotesiak zenbait analisi-ardatz elkarrekin lotu nahi izan dituen matrize baten inguruan egituratu dira:

a) Finantza-bazterketa motak

Alde batetik, eta 2014ko azterlanari dagokionez berritasun gisa, azterlanaren hipotesiak berrikusterakoan kontuan hartu ditugu literatura espezializatuan identifikatu diren finantza-bazterketa motak (Carbo eta Rodríguez, 2015; Padilla eta Sanchis, 2021).

- **Sarbidean baztertzea**, finantza-zerbitzu batean sartzeko bezero izan daitezkeen arisku-profilarekin lotuta. Ikusi dugun bezala, zenbait aldagai konbinatzen direnean gertatzen da hori, esaterako, generoa edo adinarekin konbinatzean, edo ekintzailetzarako finantziazioa eskuratzeko garaian.

Hori da, ezbairik gabe, gaur egun gehien kezkatzen duen bazterketa motetako bat, batez ere oinarritzko ordainketa-kontuetara iristeko zailtasunengatik. Sarreran esan bezala, Espainian bada eskubide hori arautzen duen araudi bat. Oinarritzko ordainketa-kontuak pertsona zaurgarrien finantza-bazterketa saihesteko sortutako produktua dira, baina oztupo burokratikoak daude, Europako banku-funtzionamendu eta -erregulazioarekin zerikusia dutenak, eta, ondorioz, zaila da horiek eskuratzeko. Horrek ondorio zuzenak ditu pertsona askoren bizitzan, ezin dute oinarritzko zerbitzurik kontratatatu (argia edo ura, adibidez); alokairua ordaintzeko zailtasunak daude; eta ezin dute eskatu Gutxieneko Bizi Diru-sarrera eta antzeko prestaziorik, ez baitute banku-konturik. Kongresuak 2023ko maiatzean onartutako finantza-bezeroaren defentsa-legearen zuzenketa zerbitzu horietarako sarbidea arintzeko pentsatuta dago.

- **Egiturazko bazterketa**. Bestalde, egiturazko bazterketaz ere hitz egin daiteke pertsona asko atzean geratzen direnean edo finantza-produktu jakin batzuetan aukera eta/edo abantaila gutxiago dituztenean diru-sarreraren maila handiagoa duten beste biztanleria-segmentu batzuekin alderatuta. Banku-sistemak berak bezero-profil jakin bat lehenesten du, beste talde batzuk alde batera utzita, adibidez, gazteak Espainian edo errenta txikiak duten taldeak. Finantza-estatusik gabeko bezeroak dira, marjinetan edo kanpoan geratzen direnak.

Finantza-bazterketaren tasei buruzko sailkapen horretan, kontuan hartu behar da finantza-zerbitzuak eskuratzearen eta erabiltzearen arteko funtsezko ezberdintasuna. Nahiz eta atzipeneko bazterketa

finantza-arloko bazterketari aurre egiteko arazo larrienetako bat izan, ez da bakarra. Izan ere, gerta daiteke herritar batzuek finantza-zerbitzuak eskuratzeko aukerarik ez izatea. Alabaina, badaude kasu batzuk zeinetan banku-kontua baduten baina ez duten erabiltzen. Alde horretatik, ikasketa gehienak zerbitzuetara sartzeko aukera soilik aztertzen dute, eta beste batzuk, berriz, erabileraren arabera bazterketa-mailak finkatzen saiatzen dira.

Erabilerari lotutako finantza bazterketa mota hauek identifikatu dira:

- **Baldintzengatik baztertzea**, finantza-zerbitzu jakin batzuk lortzeko eskatzen diren kontratuko baldintzak betetzeko zailtasun eta/edo mugekin eta/edo ezintasunarekin lotutakoa. Emakumeen (eta beste talde zaurgarrien) kasuan, baldintzak askoz zorrotzagoak izaten dira.
- **Prezioengatik baztertzea**, zerbitzu finantzarioen kostua bere gain hartzeko zailtasun eta/edo mugekin eta/edo ezintasunarekin zerikusia duena.
- **Marketineko bazterketa**, produktu edo zerbitzu jakin batzuk eskaintzen zaizkion xede-taldeko kide ez izatearekin zerikusia duena.
- **Nork bere burua baztertzea**, gizabanakoek produktu finantzarioak eskatzeari uko egitea, ez zaizkiela emango uste izateagatik. Are gehiago, gero eta pertsona gehiagok baztertzen dute beren burua zenbait finantza-zerbitzuren erabiltzeko aukeratik.

b) Finantza-arloan genero-desberdinkeria definitzen duten faktoreak

Bestalde, literatura berrikusita, desberdinkeria hori definitzen duten ezaugarriak zein diren justifikatzeko balio duten arrazoi nagusiak biltzen dituzten bost faktore identifikatu ditugu. Faktore horietako askoren emaitza finantza-bazterketa da, eta estereotipo nagusietan oinarritzen dira. Estereotipo horiek definitzen dute emakumeek finantza-erakundeekin dituzten harremanen esparrua.

Bost faktore horien arabera antolatu ditugu ikerketaren hipotesiak. 2014ko azterlanean sartutako 12 hipotesietatik, zortzi baino ez dira geratu 2024an, azterlanari barne-kohesio handiagoa ematen saiatzeko eta metodologia-sendotasun handiagoa izateko hauek frogatzeko: 1) genero-desberdinkeria horiek, gehienetan, estereotipo nagusietan oinarritzen direla eta 2) estereotipo horiek baldintzatu egiten dituztela eta eragina dutela finantza-erakundeek emakumeekiko duten portaeran. Bi aldagai horien konbinazioaren

ondorioz, genero-arrazoiengatik finantza-bazterketa gertatzen da modalitate guztietan.

- Autonomia finantzarioaren maila emakumezkoetan eta gizonezkoetan

Alde batetik, estereotipo baten arabera, emakumeek erantzukizun handiagoa dute, eta gizonezkoak, berriz, erabakirik funtsezkoenak, esaterako, inbertsioak, kontrolatzen dituztenak dira. Pentsatzekoa da emakumeak direla etxeko aurrekontuaren ardura dutenak, eta diru-sarrerak eta gastuak kudeatzen dituztela, familiaren beharren eta behar-beharrezkoak ez diren kontsumo-ondasunen arabera. Gizonezkoak, aldiz, jabetuta daude gastuak ordaintzeko zenbat diru esleitu den, baina ez dakite zein diren gastu segmentu bakoitzari dagozkion xehetasunak eta zenbatekoak.

Hori kontuan hartuta, hurrengo atalean aurkeztu den azterketa enpirikoan, genero-desberdinkeriarik dagoen egiaztatu nahi izan da, kontuan hartuta gizonek eta emakumeek parte-hartze desberdina dutela etxeko gaitan erabakiak hartzeko garaian eta, oinarritzko finantza-produktu konplexuei buruzko erabakiak hartzeko garaian.

Gai horri buruzko hipotesi hau baliozkotzen saiatu gara:

H1: Emakumeek neurri txikiagoan parte hartzen dute funtsezko familia-erabakietan ("garrantzitsuak", epe luzekoak), etxeko gaiekin zerikusia duten erabakietan baino, eta azken horien erantzukizuna ez dute modu berean hartzen. Erabakietan eta erantzukizunak hartzean dagoen desberdintasun horrek emakumeen eta finantza-erakundearen arteko harremana definitzen du.

Bestalde,

emakumeen aukerak nahiz finantza-gaitasuna zehazten dituen arrazoi nagusia soldata-arrakalari lotuta dago nagusiki, eta horrek eragin zuzena du emakumeen finantzaketa-aukeretan.

Diru-sarrera txikiagoak dituztenez, aurrezteko, inbertitzeko edo kreditua eskuratzeko aukerak murriztu egiten dira. Horregatik, komeni da jakitea finantza-testuinguruan tratu diferentziarik dagoen, etxerako diru-ekarpena kontuan hartuta.

Gainera, txosten honen lehen atalean azaldu den bezala, bankuen joerak erakusten du inbertsio handia eskatzen duten eta hazkunde ekonomikoko sektore potentzialei eta berritzaileei zuzentzen zaizkien enpresa-proiektuei kredituaren bidez laguntzeko interesa handiagoa dela enpresa-proiektu txikien garapenari laguntzeko interesa baino. Emakumeek, batez ere, horrelako enpresa-proiektuak sustatzen dituzte. Finantza-erakundeek proiektu horiei laguntzeko finantziazio-bide alternatiboak badituzte ere, zaila da produktu horiei eta haien ezaugarriei buruzko informazioa eskuratzeko, epe laburreko lortzen-emaitzak betetzeak baldintzatutako testuinguru batean, produktu errentagarriagoekin errazago lortzen baitira.

Euskal gizartearen testuinguruan emakumeen eta gizonen finantza-autonomiaren maila desberdinen irismena aztertzeko, hipotesi hau proposatu da:

H2: Generoa eta beste aldagai batzuk (adina, diru-sarrera, jatorria, hezkuntza-mailak) erlazionatuta daude, eta horrek eragina du finantza-sistema formaleko zerbitzu eta produktuetarako sarbidean.

- Finantza-kontrola

Beste faktore garrantzitsu bat da emakumeek finantza-erabilerari buruz duten finantza-kontrol handiagoa edo txikiagoa eta erabakiak askatasun eta independentzia handiagoz edo txikiagoz hartzeko gaitasuna izatea.

Alde horretatik, finantza-kontrolari buruzko funtsezko elementu bat, esan dugun bezala, aktiboen edukitzearekin edo horiek eduki eta erabiltzeko gaitasunarekin lotuta dago. Oro har, aktiboen gaitasun juridikoaren eta jabetza-eskubideen mugek harreman zuzena dute emakumeek finantza-produktu eta -zerbitzuak eskuratzeko dituzten oztopoekin.

Jabetza eduki, administratu, kontrolatu eta, are gehiago, oinordetzeko ahalmenak (eta aukerak) eragina du emakumeek aktiboak berme gisa emateko dituzten aukeretan edo maileguen bidez finantzatzutako ondasunen tituluak izateko aukeran. Alde horretatik, jabetzari buruzko legeek duten eginkizuna funtsezkoa da, baina ez dugu ahaztu behar, halakoak badauden eta eraginkorrak diren arren, praktikan, emakumeek ondasun horiek eskuratzeko duten gaitasuna mugatuta egon ohi dela, genero-joera argia duten kultura-faktoreen eta gizarte-jardunbideen ondorioz.

Esan bezala, nahiz eta Espainian ez dagoen legeko oztoporik emakumeen egoera zibilari lotutako kreditua edo ondasun propioak izateko, oraindik aurreiritziek baldintzatu egiten dute emakumeek ondasunak berme gisa erabiltzea, norberaren edo familiaren ondarea arriskuan jarriz, baldin eta ondasun horiek ez badira erabiliko etxeko diru-sarrera nagusiak lortzeko. Gainera, Espainian nagusi den ezkontzaren araubide ekonomikoa irabazpidezko ondasunen araubidea da oraindik ere, ezkontzen diren bikoteentzat lehenespenez ezartzen dena. Hala, bi ezkontideek sinatzea ezinbesteko baldintza da ondarea eskuratzeko, eta horrek, kasu batzuetan, traba egin diezaieke adostasuna ez duten edo, adibidez, dibortzio-prozesuan dauden emakumeei, non ez den desegin irabazpidezko sozietatea, etab.

Jabetzaren erabilerari buruzko finantza-kontrola funtsezko elementua da eremu horretako genero-desberdinkeriak ulertzeko, baina, era berean, emakumeen finantza-kultura handiagoak edo txikiagoak ematen duen finantza-erabileraren segurtasunari eta kontrolari buruzko benetako gaitasunekin eta/edo norberak hautemandakoarekin zerikusia dutenak ere badira. Gai horri dagokionez, aipatu da

ez dagoela ebidentzia argirik kultura finantzarioaren mailan emakumeen eta gizonen arteko alde nabarmenak daudela erakusten dutenik.

Hala ere, emakumeak lehentasunezko talde gisa identifikatzen dira, eta zenbait arrazoi direla medio (adina, etnia, klasea, etab.), beste kolektibo batzuek baino (adibidez, antzeko ezjakintasun-maila finantzarioa duten gizonak) behar handiagoa du **ad hoc** prestakuntza jasotzeko hezkuntza-defizit sistemikoa arintzeko helburuarekin.

Horrek guztiak beste hipotesi bat planteatzera eramán gaitu finantza-gaien segurtasun, kontrol eta jarraipenari buruz, eta autonomia ekonomikoaren mailari dagokionez emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen aldeez:

H3: Finantza-erabilerari buruz emakumeek gizonek baino kontrol txikiagoa izatearen autopertzepzioak eragina du finantza-erakundeekiko harremanetan, zerbitzuak edo finantza-produktuak modu autonomoan kontratatatzeko orduan.

- Finantzekiko balioak eta jarrerak

Finantzekiko balio eta jarreraren esparrua hirugarren

faktore giltzarria da emakumeek finantza-arloan dituzten harremanen sare horretan desberdintasuna nola gertatzen eta erreproduzitzen den baloratzeko. Finantza-sistemarenak diren berezko prozesuek gizarte-harremanak eraikitze modu jakin batzuk dakartzate berekin eta interpretazio-esparruak eta kultura-forma espezifikoak erabiltzea dakarte. Finantza-eragiketak (kreditua, aurrezkia, inbertsioa) etengabe berrinterpretatzen dira haien erabilera legitimatzeko. Hedatuta dago, esate baterako, emakumeek ez dituztela gizonak bezain besteko arrisku finantzarioak hartzen; horregatik eskatzen dituzte mailegu gutxiago, eta zenbateko txikiagoen truke. Gizonetakoak gehiago identifikatzen dira izaera sendoagoa eta garrantzi handiagoa duten finantzen alderdi "maskulinoagoekin": errentagarritasuna, likidezia, fiskalitatea, etab. Emakumeak, aldiz, balio emozionalagoekin identifikatzen dira, esaterako, segurtasunarekin eta konfiantzarekin. Emakumeek finantza-portaera konstanteagoak eta kontserbadoreagoak dituztela pentsatzen da: gutxiago arriskutzen dute eta gehiago arduratzen dira segurtasunaz.

Balioei eta finantzekiko jarrerari buruzko faktore horri buruzko azterketa enpirikoan lotutako hipotesiak ere oso errotuta dauden bi estereotipo sendori lotuta daude, emakumeen finantza-elkarreraginari buruzko imajinarioan:

H4: Emakumeek gizonak baino gehiago saihesten dute finantza-arriskua.

H5: Esparru ekonomiko-finantzarioan alderdi maskulinoari egozten zaizkien balioekin gutxiago identifikatzen dira emakumeak: lehiakortasuna, lehentasuna onura bilatzea izatea, arriskua eta abar.

- Sare formal edo informalaren erabilera finantza-jardueran

Aurrekoarekin estu lotuta, badirudi korrelazioa dagoela generoaren aldagaiaren eta diru-sarreraren mailaren, hezkuntza-mailaren eta adinaren artean. Horrek ere erlazio horiek baldintzatzen ditu, eta balio dezake, halaber, emakumeek sare formalak eta informalak modu desberdinean nola erabiltzen dituzten azaltzeko, beren finantza-behar jakinak asetzeko garaian. Hori dela eta, emakumeen finantza-portaera baloratzeko azterketa-elementu interesgarri bihurtzen dira autonomia faltaren ondoriozko baldintzatzaileak, gizarte-baliabideak mobilizatzeko trebetasunak, gizarte-loturak edo konfiantzazko harremanak. Hipotesi honen bidez egiaztatzen saiatuko gara:

H6: Emakumeen hezkuntza-mailak eragina du aholkularitza finantzarioa eskatzeko erabiltzen den sarean (formala edo informala).

- Genero-aurreiritziak herritarren artean

Esan bezala, emakumeak, gazteekin, pobreekin, landa-eremuko biztanleriarekin, migratzaileekin eta ekonomia informaleko langileekin batera, oro har eta mundu mailan, finantza-bazterketak gehien eragiten dien taldeak dira. Horiez gain, ezgaitasun fisikoak dituzten pertsonak ere sartzen dira, bereziki kolektibo zaurgarriak.

Gainera, legeriak edo ohiturak tratu bereizia aurreikusten edo onartzen duen tokietan, emakumeek gizonek baino aukera gutxiago dute kontu bat izateko, aurrezteko edo maileguak hartzeko. Izan ere, badago desberdinkeria formala bazterketa eta diskriminazioa eragiten duten egiturazko baldintzak dituzten eskualde batzuetan. Baina, aldi berean, formalki emakumeak finantza-ondasun eta -zerbitzuak eskuratzeko aukeratik baztertzen ez diren beste testuinguru batzuetan, argi dago, harreman-mailan, ondasun eta zerbitzu horien horniduran gizonen eta emakumeen arteko tratu bereizia eta desberdindua adierazten duten seinale batzuk daudela. Seinale horietako batzuk esplizituagoak dira: erakundeek lehentasunezko talde objektiboak aukeratzeko duten modua, kasu batzuetan, generoak erabakitzen du.

Kreditu-arriskuaren irizpideek ere genero-joera bera izan dezakete eragiketarako ebaluatzerakoan. Horren ondorioz, eskakizun handiagoak, kostu handiagoak edo emakumeei lotutako produktuak sor daitezke. Entitateak emakumei emandako informazioa, kredituaren baldintzen negoziazioan duten eragina, norberaren eta familiaren egoera, etab. sarbide hori baldintzatzen duten elementuak dira. Baina beste batzuetan modu sotil eta ia hautemanenezinean erreproduzitzen da. Izan ere, gizonei eta emakumei bereizita emandako tratua alderatu egin behar da, tratu argi eta garbi bereizi horretan genero-aldagaiak daudela ohartzeko.

Tratu bereizia, beraz, erabakigarria izan al daiteke finantza-arloan genero-desberdinkeria eragiten duten prozesuak ulertzeko? Zer eragin dute estereotipo nagusiek tratu bereizi horretan? Gai horri buruz, zati enpirikoan bi hipotesi baliozkotzen saiatuko gara:

H7: Tratu bereizia dago emakumeen eta gizonen eta finantza-erakundeen arteko harremanetan.

H8: Genero-estereotipo nagusiek baldintzatzen dituzte emakumeen eta gizonen finantza-portaera desberdinak.

Hipotesi horietatik abiatuta, finantza-sektoreko genero-desberdinkerien azterketa enpirikoaren eguneratzea aurkeztzen da hemen. Ikerketa enpiriko horren testuingurua azpimarratu behar da; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoa da lehen mailako datu-bilketaren azterketa-esparrua.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriak berezkoa duen errealitate soziodemografikoak, ekonomikoak eta kulturalak eragina du euskal biztanleriarengandik lortutako emaitzetan, eta, beraz, testuinguru geografiko eta sozial desberdin bati aplikatutako ikerketak emaitza desberdinak eman ditzake.

Hori dela eta, ikerketa hori egin den esparrutik ulertu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko finantza-sektoreko genero-desberdinkeria errealitatea epe jakin batean sakon aztertu nahi izan baita. Fenomeno jakin hori aztertzen duten beste azterketa enpirikorik ez dagoenez, azterketa hori erreferentzia bihurtu da, finantzetako genero-desberdinkeria buruzko azterketan laguntzeko.

Bestalde, 2024an azterketa enpirikoak ez du kontuan hartu finantza-sektoreko eta banku-erakundeetako dokumentu-iturrien azterketa. Batez ere, inkestak egin zaizkie EAEko biztanleei ikerketaren hipotesiak balioetsi eta kontrastatzeko datuak lortzeko.

3.3 Sintesia

ARRAZOIAK	FACTOREAK	AZTERKETAREN HIPOTESIA	MOTA
Finantza-sektoreko genero-desberdinkeriak populazioan	AUTONOMIA FINANTZARIOAREN MAILA EMAKUMEZKOETAN ETA GIZONEZKOETAN	H1: Emakumeek neurri txikiagoan parte hartzen dute funtsezko familia-erabakietan ("garrantzitsuak", epe luzekoak), etxeko gaiekin zerikusia duten erabakietan baino, eta azken horien erantzukizuna ez dute modu berean hartzen. Erabakietan eta erantzukizunak hartzean dagoen desberdintasun horrek emakumeen eta finantza-erakundeen arteko harremana definitzen du.	SARBIDEAN BAZTERTZEA
		H2: Generoa eta beste aldagai batzuk (adina, diru-sarrerak, jatorria, hezkuntza-mailak) erlazionatuta daude, eta horrek eragina du finantza-sistema formaleko zerbitzu eta produktueterako sarbidean..	AUTOBAZTERKETA
	FINANTZA-KONTROLA	H3: Finantza-erabilerari buruz emakumeek gizonen baino kontrol txikiagoa izatearen autopertzepzioak eragina du finantza-erakundeeikiko harremanetan, zerbitzuak edo finantza-produktuak modu autonomoan kontratatzeke orduan.	
	FINANTZEKIKO BALIOAK ETA JARRERAK	H4: Emakumeek gizonen baino gehiago saihesten dute finantza-arriskua.	
		H5: Esparru ekonomiko-finantzarioan alderdi maskulinoari egozten zaizkien balioekin gutxiago identifikatzen dira emakumeak: lehiakortasuna, lehentasuna onura bilatzea izatea, arriskua eta abar.	EGITURAZKO BAZTERKETA
Finantza entitateek emakumeekin duten portaera: Tratu bereizia	SARE FORMAL EDO INFORMALEN ERABILERA FINANTZA-JARDUERAN	H6: Emakumeen hezkuntza-mailak eragina du aholkularitza finantzarioa eskatzeko erabiltzen den sarean (formala edo informala).	
	GENERO-AURREIRITZIAK HERRITARREN ARTEAN	H7: Tratu bereizia dago emakumeen eta gizonen eta finantza-erakundeen arteko harremanetan.	EGITURAZKO BAZTERKETA
		H8: Genero-estereotipo nagusiek baldintzatzen dituzte emakumeen eta gizonen finantza-portaera desberdinak.	



4. Finantza-sektoreko genero-desberdinkeriak: kasu-azterketa Euskadin

Azterketaren bigarren fasean, **Euskal Autonomia Erkidegoko 24 eta 65 urte bitarteko biztanleen artean 900 inkesta egin dira.** Egindako inkesten emaitzak bost ataletan egituratu dira:

A) AUTONOMIA FINANTZARIOAREN MAILA EMAKUMEZKOETAN ETA GIZONEZKOETAN.

B) FINANTZA-KONTROLA

C) FINANTZEKIKO BALIOAK ETA JARRERAK

D) SARE FORMAL EDO INFORMALEN ERABILERA FINANTZA-JARDUERAN

E) GENERO-AURREIRITZIAK HERRITARREN ARTEAN

4.1 Autonomia finantzarioaren maila emakumezkoetan eta gizonezkoetan


El Atal honen helburua zen finantza-gaietan erabakiak hartzeko eta erantzukizunak hartzeko orduan emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasunari buruzko ebidentziak aurkitzea, eta ahaleginak egitea emakumeek familia-erabaki nagusietan ("garrantzitsuak", epe luzeak) etxeko gaiekin zerikusia duten beste erabaki batzuetan baino gutxiago parte hartzen duten balioztatzeko.

Etxeko gaietan erabakiak hartzen parte hartzea: bikotean bizi diren pertsonak kontuan hartuta, azterketaren emaitzen arabera, emakumeek protagonismo handiagoa dute informazio-lanetan eta, neurri handiagoan, eguneroko erosketak erabakitzen. Gauza bera gertatzen da ondasun iraunkorrak erostean, nahiz eta gizonek protagonismo handiagoa hartzen duten kasu honetan.

Seme-alabekin zerikusia duten gaiei buruzko erabakiak hartzeari eta informazioa bilatzeari dagokionez, parte-hartzea are nabarmenagoa da, nahiz eta gai horretan emakumeak erabakitzaile bakar gisa duen zeregina gizonetzkoarena baino handiagoa izan.

1. taula:
Etxeko gaietan erabakiak hartzen parte hartzea

■ Ni ■ Partekatua ■ Beste batzuk



Oinarrizko finantza-produktuei buruzko erabakiak


hartzen parte hartzea: eguneroko ekonomiako produktuekin zerikusia duten finantza-erabakiei dagokienez (zordunketa- eta kreditu-txartelak edo kontu korronteak, adibidez), oro har, informazioa bilatzea eta erabakiak hartzea partekatzen diren gaiak dira, edo gizonak eta emakumeek antzeko garrantzia hartzen dute protagonista bakar gisa.

Hala ere, kreditu-txartelei dagokienez, emakumeek maizago izaten dute funtzio erabakigarriagoa.

Era berean, emakumeak gizonak baino portzentaje handiagoan dira produktu honen titular bakarra; aldiz, gizonak dira kontu korronte bat irekitzeko titulartasunaren portzentaje handiagoa dutenak.

2. taula:
Oinarrizko finantza-produktuei
buruzko erabakietan parte hartzea

■ Ni ■ Partekatua ■ Beste batzuk




Finantza-produktu konplexuei buruzko erabakietan

parte hartzea: familietan kontratatutako finantza-produktuak konplexuago bihurtzen diren heinean, emakumeek autonomia irabazten dute. Bikoteen inbertsio-produktuen titulartasuna eta erabakia emakumeenak dira gehienbat (emakumeen titulartasuna % 21,6koa da eta erabakia % 43,4koa), eta gero eta presentzia handiagoa dute emakumezkoek horrelako produktuetan.

Kreditu baten eskaera eta pentsio-planak dira gizonek informazio eta titulartasun handiagoa duten produktuak, baina ez azken erabakia hartzeari dagokionez, ehuneko handiena emakumeena baita.

3. taula:
Finantza-produktu konplexuei buruzko
erabakietan parte hartzea

■ Ni ■ Partekatua ■ Beste batzuk



Populazio-profilak, finantza-erabakien gaineko autonomiari dagokionez:


finantza-produktuei buruz banaka hartzen diren erabaki-ekintzekin lotutako azterketaren emaitzei esker, argi eta garbi bereizitako hiru profil defini daitezke:

- pertsona **autonomoak**, kontratazio-erabakia bakarka hartzen dutenak edo protagonismo nagusia dutenak.
- erabakiak **beste pertsona batzuekin batera** hartzen dituzten pertsonak.
- **autonomia-eza** duten pertsonak, finantza-produktuak kontratatzeko erabakia hartzeko orduan parte-hartze nulua edo sekundarioa dutenak.

Profil horiei erreparatuta, inkestari erantzun dioten % 53,2 finantza-erabakien gaineko autonomia duten pertsonak dira; % 41,4, berriz, erabakiaren partaide dira, eta % 5,4, erabakitzeko ahalmen urria duten pertsonak.

1. grafikoa:
Populazio-profilak, finantza-erabakien gaineko autonomiari dagokionez

Autonomiaduna Erabaki partekatua Autonomiarik ez



Finantza-autonomiaren mailak emakumeetan eta gizonetan:

pertsona autonomoen multzoa osatzen duten pertsonen artean, emakumeek bizikidetzaren profila bat dute bikotekidearekin, adinez nagusiagoak, unibertsitate-ikasketen ehuneko handiagoa, jarduera ekonomikodunak, gehienbat diru-sarreraren propioak dituztenak eta etxerako diru-ekarpen handiagoak egiten dituztenak. Gizon autonomoen emakumeen antzeko profila dute, familia unitate motari eta prestakuntzari dagokienez, baina pisu handiagoa dute etxerako diru-ekarpen handiagoa egiten.

Erabakietan parte hartzen

duten emakumeek emakume autonomoen antzeko profila dute: diru-sarreraren propioak dituzte, baina ez dira etxean diru gehien sartzen dutenak, adinez nagusiak dira eta, ia guztiak, bikotekidearekin bizi dira. Erabakietan parte hartzen duten gizonen gizon autonomoen antzeko prestakuntza dute eta, erabakietan parte hartzen duten emakumeek bezala, bikotekidearekin bizi dira, baina adinez gazteagoak dira. Diru-sarreraren propioak dituzten gizonen ehunekoa handiagoa da eta emakumeengandik urrundu egiten dira etxerako diru-ekarpen handiagoak egitean.

Finantza-autonomiarik ez duten emakumeak bikotekidearekin bizi dira, prestakuntza-maila ona dute, baina ekonomia-jarduerarik eza handia da, independentzia ekonomiko txikiagoa dute eta etxerako ekarpen ekonomiko txikiagoa egiten dute. Autonomia-mailarik txikiena duten gizonak, gehienak ere, bikotekidearekin bizi dira, eta independentzia eta gaitasun ekonomiko txikiak dutenak dira. Hala ere, emakumeak ez bezala, gehienak unibertsitateko prestakuntza duten gizonak dira.


4. taula:
Finantza-autonomiaren mailak emakumeetan

Autonomiaduna Erabaki partekatua Autonomiarik ez


EMAKUMEAK

ADINA 46,7 47,3 44,4


FAMILIA-UNITATEA *




HEZKUNTZA




JARDUERA *



DIRU-SARRERA PROPIOAK



ETXERAKO DIRU-EKARPEN HANDIAGOAK



*Alde estatistikoki esanguratsuak.

2014ko datuekin alderatuta, autonomia-maila desberdinetako emakumeak nagusiagoak dira, prestakuntza handiagoa dute (unibertsitate-ikasketak), jarduera ekonomiko handiagoa dute, independentzia ekonomiko handiagoa eta diru-ekarpen handiagoak egiten dituzte etxerako.

5. taula:
Emakumeen finantza-autonomiaren
bilakaera

EMAKUMEAK

	GUZTIRA 2014	GUZTIRA 2022	BILAKAERA
ADINA *	44,7	46,8	+ 2,12
FAMILIA-UNITATEA *			
EZ DA BIKOTEKIDEAREKIN BIZI %17,8		%21,2	+ % 3,4
BIKOTEKIDEAREKIN BIZI DA %82,2		%78,8	- % 3,4
HEZKUNTZA			
BIGARREN HEZKUNTZARA ARTE %50,9		%44,6	- % 6,2
UNIBERTSITATEA %49,1		%55,4	+ % 6,2
JARDUERA *			
JARDUERA EKONOMIKOA %55,1		%73,6	+ % 18,4
LANGABEZIA %21,7		%10,7	- % 11
JARDUERA EKONOMIKORIK EZ %23,1		%15,7	- % 7,4
DIRU-SARRERA PROPIOAK			
BAI %70,7		%86,5	+ % 15,7
EZ %29,3		%13,5	- % 15,7
ETXERAKO DIRU-EKARPEN HANDIAGOA			
BAI %31,7		%44,1	+ % 12,4
EZ %68,3		%55,9	- % 12,4

*Alde estatistikoki esanguratsuak.


6. taula:
Finantza-autonomiaren mailak gizonetan

Autonomiarekin Erabaki partekatua Autonomia-falta


GIZONAK

ADINA 46,5 45,9 40,9


FAMILIA-UNITATEA *



HEZKUNTZA




JARDUERA *



DIRU-SARRERA PROPIOAK



ETXERAKO DIRU-EKARPEN HANDIAGOA



*Alde estatistikoki esanguratsuak.

2014ko datuekin alderatuta, autonomia-maila desberdinetako gizonak gazteagoak dira, prestakuntza handiagoa dute (unibertsitate-ikasketak), jarduera ekonomiko txikiagoa dute, independentzia ekonomiko txikiagoa eta, beraz, diru-ekarpen txikiagoak egiten dituzte etxerako.

7. taula:
Gizonen finantza-autonomiaren
bilakaera

GIZONAK

	GUZTIRA 2014	GUZTIRA 2022	BILAKAERA
ADINA *	45,9	40,9	- 5,04
FAMILIA-UNITATEA *			
EZ DA BIKOTEKIDEAREKIN BIZI %25,4		%5,5	+ % 3,4
BIKOTEKIDEAREKIN BIZI DA %74,6		%94,5	- % 3,4
HEZKUNTZA			
BIGARREN HEZKUNTZARA ARTE %41,2		%20,5	- % 20,6
UNIBERTSITATEA %58,8		%79,5	+ % 20,6
JARDUERA *			
JARDUERA EKONOMIKOA %81,8		%80,0	- % 1,8
LANGABEZIA %4,4		%14,3	+ % 9,9
JARDUERA EKONOMIKORIK EZ %13,8		%5,7	- % 8,1
DIRU-SARRERA PROPIOAKK			
BAI %89,0		%81,8	- % 7,1
EZ %11,0		%18,2	+ % 7,1
ETXERAKO DIRU-EKARPEN HANDIAGOA			
BAI %73,1		%38,9	- % 34,2
EZ %26,9		%61,1	+ % 34,2

*Alde estatistikoki esanguratsuak.

Profil horiek finantza-autonomiari dagokionez zehaztu ondoren, datuek adierazten dute sexuak, berez, ez duela alde handirik ezartzen biztanleen autonomia-profilean. Sexua aldagai bat da, eta beste aldagai batzuekin batera hartu behar da kontuan, hala nola adina, familia-unitatea, prestakuntza eta etxerako diru-ekarpen handiagoak egitea. Horiek dira, hasiera batean, emaitzak bereizteko bide ematen dutenak:

- *Pertsonen finantza-autonomian desberdintasunak ezartzen dituen lehen aldagaia, jakina, bikotekidearekin bizitzea da. Bikotekidearekin bizi ez diren pertsona gehienek profil autonomoa dute.*

- *Etxera diru-sarrera handiagoak ekartzearen aldagaia ere funtsezkoa da pertsonen autonomia finantzarioa azaltzeko. Biztanle guztien artean, finantza-autonomia handiagoa dago etxera diru gehien ekartzen dutenen artean.*

A priori, beraz, badirudi finantza-autonomia handiagoa dagoela bikotekidearekin bizi ez denean, edo bikotekidearekin bizi denean, baina etxera diru-ekarpen handiena egiten duenak eta unibertsitate-prestakuntza duenak. Gainera,

sexuaren aldagaiak, bere horretan, autonomia-desberdintasunei buruzko daturik ematen ez badu ere, inplizituki ematen du, emakumeek askoz garrantzi txikiagoa baitute etxeko diru-sarrerak mantentzen dituen pertsona nagusi gisa.

Finantza-erakundeekiko tratua, etxerako diru-ekarpenen arabera

arabera: bikotekidearekin bizi diren emakumeen kasuan, gizonen baino gehiago hartzen dute beren gain finantza-erakundeekiko tratua: emakumeen % 16ak eta gizonen % 8,8ak.

2014arekin alderatuz, emakumeak finantza-erakundeekiko tratuan duen garrantzia indartu egin da, eta kasuen % 32,6ra iritsita, emakumeak hartzen du batez ere tratu hori; hala, murriztu egiten da bikotearen eta familiako beste pertsona batzuen zeregina. Gizonen kasuan, % 37,1ek hartzen dute beren gain finantza-erakundearekiko tratua, eta % 47,3k bikotekidearekin batera.

Bikotedun populazioan etxerako diru-ekarpen handiagoak egiten dituzten ala ez kontuan hartzen denean, diru-sarrera handienak dituzten pertsonak emakumeak badira, erakundeekiko harremanetan autonomia handiagoa dutela ikusten da.


Aldiz, familia-ekonomiari egiten dion ekarpena txikiagoa denean, protagonismoa nabarmen murrizten da, eta gizonen egoera baino beherago geratzen da, eta, ondorioz, elkar partaidetza gertatzen da.

8. taula:


Finantza-erakundeekiko tratua, etxerako diru-ekarpenen arabera

■ Diru-sarrera handiagoa ■ Diru-sarrera txikiagoa/diru-sarrerarik ez

EMAKUMEAK



GIZONAK



*Alde estatistikoki esanguratsuak.

** Alde estatistikoki esanguratsuak emakumeen kasuan.

Laburbilduz, azken azterketan lortutako datuekin alderatuz gero, emakumeek gizonak baino eboluzio positiboagoa izan dute. Horrek esan nahi du emakumeak orain autonomoagoak direla finantza-erakundeekiko tratuari dagokionez, eta, gainera, presentzia handiagoa dutela parte-hartze bateratuan.

9. taula:
Finantza-erakundeekiko
tratuaren bilakaera

EMAKUMEAK	GUZTIRA 2014	GUZTIRA 2022	BILAKAERA
NI, BATEZ ERE**	%26,9	%32,6	+% 5,7
NI ETA NIRE BIKOTEKIDEA, BATERA EDO BIETAKO EDOZEINEK*	%41,3	%48,4	+% 7,2
NIRE BIKOTEAK BATEZ ERE	%18,4	%16,0	- % 2,24
FAMILIAKO BESTE PERTSONA BATZUK*	%10,6	%2,0	- % 8,6
BESTE BATZUK	%1,1	%1,0	- % 0,1
ED/EE	%1,7	%0,0	- % 1,7
GIZONAK	GUZTIRA 2014	GUZTIRA 2024	BILAKAERA
NI, BATEZ ERE**	%33,9	%37,1	+% 3,2
NI ETA NIRE BIKOTEKIDEA, BATERA EDO BIETAKO EDOZEINEK*	%42,4	%47,3	+% 4,8
NIRE BIKOTEKIDEA BATEZ ERE	%7,7	%8,8	+% 1,1
FAMILIAKO BESTE PERTSONA BATZUK*	%11,5	%5,6	- % 5,9
BESTE BATZUK	%2,8	%0,7	- % 2,1
ED/EE	%1,8	%0,6	- % 1,2

*Alde estatistikoki esanguratsuak.

** Alde estatistikoki esanguratsuak emakumeen kasuan.

4.2 Finantza-kontrola

Gizonek eta emakumeek beren buruari esleitzen dioten kontrol-mailan dauden aldeak ez dira nabarmenak izaten kontratatutako finantza-produktuen jarraipenari, ezagutzari, hartutako erabakien segurtasunari eta etxeko finantzak zuzenean kudeatzeari dagokionez.


Emakumeen eta gizonen finantza-jarduera, etxerako diru-ekarpenen arabera:

alde nabarmenenak hirugarren batekin finantza-erabakiak kontsultatzeko beharrean aurkitzen dira: emakumeen % 38,2 eta gizonen % 36,4.

Zenbat eta diru-ekarpen handiagoa egin etxerako, orduan eta handiagoa da finantza-kontrola. Joera hori komuna da gizon eta emakumeetan, etxeko finantzez zuzenean arduratzeko lehentasunari dagokionez.

10. taula:
Emakumeen eta gizonen finantza-jarduera,
etxerako diru-ekarpenen arabera

Inoiz ez/gutxitan Zenbaitetan Gehienetan/beti



*Alde estatistikoki esanguratsuak.

** Alde estatistikoki esanguratsuak emakumeen kasuan.

***Alde estatistikoki esanguratsuak emakumeen eta gizonen kasuan.

Zenbat eta diru-ekarpen handiagoa egin etxerako, orduan eta handiagoa da aitortutako finantza-ezagutza, eta handiagoa da etxeko finantzen segimendua. Gizonak, berriz, hartzen dituzten erabakiez seguruago daude, eta ez diete hainbesteko kontsultarik egin behar izaten hirugarrenei.

Arestian aztertutako datuak kontuan hartuta, **gero eta independenteagoak dira emakumeak izapide eta erabaki autonomoei dagokienez, hirugarrenei kontsultatu beharrik gabe aritzean**. Aitzitik, gizonen bilakaera txikiagoa da finantza-produktu bat aukeratzeko behar diren jarraipenean eta ezagutzan.

11. taula (I):
Emakumeen eta gizonen finantza-jardueraren bilakaera

EMAKUMEAK

	GUZTIRA 2014	GUZTIRA 2022	BILAKAERA
KONTRATATUTAKO FINANTZA-PRODUKTUEN EGOERAREN SEGIMENDUA EGITEN DUT*			- % 6,4 - % 4,4 + % 11,7
FINANTZA-PRODUKTU BAT KONTRATATZEKO GARAIAU AUKERA ONENA HAUTATZEKO NAHIKOA EZAGUTZA DUT*			- % 3,6 - % 3,9 + % 8,8
FINANTZA-PRODUKTU BAT KONTRATATZEKO GARAIAU AUKERARIK ONENA KONTRATATZEN ARI IZATEAREN SEGURTASUNA DUT**			0 - % 1,4 + % 5,1
NAHIAGO DUT BESTE PERTSONA BAT ARDURATZEA ETXKO FINANTZAK KUDEATZEAZ***			+ % 11,1 - % 4,2 - % 6,0
FINANTZA-PRODUKTU BAT KONTRATATU BEHAR DUDANEAN NIRE ERABAKIAK HIRUGARREN BATEKIN KONTSULTATU BEHARRA DUT**			+ % 10,8 - % 3,1 - % 5,9

*Alde estatistikoki esanguratsuak.

** Alde estatistikoki esanguratsuak emakumeen kasuan.

***Alde estatistikoki esanguratsuak emakumeen eta gizonen kasuan.

11. taula (II):
Emakumeen eta gizonen finantza-
jardueraren bilakaera

GIZONAK

	GUZTIRA 2014	GUZTIRA 2022	BILAKAERA
KONTRATATUTAKO FINANTZA- PRODUKTUEN EGOERAREN SEGIMENDUA EGITEN DUT*			- %1,0 - %4,4 + %6,5
FINANTZA- PRODUKTU BAT KONTRATATZEKO GARAIA AUKERA ONENA HAUTATZEKO NAHIKOA EZAGUTZA DUT*			- %1,9 - %3,4 + %4,5
FINANTZA- PRODUKTU BAT KONTRATATZEKO GARAIA AUKERARIK ONENA KONTRATATZEN ARI IZATEAREN SEGURTASUNA DUT**			+ %0,2 - %3,6 + %6,4
NAHIAGO DUT BESTE PERTSONA BAT ARDURATZEA ETXEKO FINANTZAK KUDEATZEAZ***			+ %10,9 - %7,1 - %4,7
FINANTZA- PRODUKTU BAT KONTRATATU BEHAR DUDANEAN NIRE ERABAKIAK HIRUGARREN BATEKIN KONTSULTATU BEHARRA DUT**			+ %10,7 - %11,3 + %0,9

*Alde estatistikoki esanguratsuak.

** Alde estatistikoki esanguratsuak emakumeen kasuan.

***Alde estatistikoki esanguratsuak emakumeen eta gizonen kasuan.

Emakumeen eta gizonen finantza-erabilera, prestakuntza-mailaren arabera:


unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeek gutxiago ezagutzen dituzte finantzak; unibertsitate-prestakuntza duten emakumeen % 27,9k dio ez dakiela finantza-produktu bat kontratatzeko aukerarik onena zein den, eta prestakuntza berbera duten gizonen % 23,7k. Bigarren Hezkuntzara bitarteko ikasketak dituzten emakumeen kasuan, ehunekoa handiagoa da: % 35,6.

Era berean, goi-mailako prestakuntza duten emakumeek premia handiagoa dute hirugarren bati kontsulta egiteko finantza-produktu bat kontratatzerakoan: % 43,4, gizonen % 34,5en aldean; bigarren hezkuntzara bitarteko ikasketak dituzten emakumeen ehunekoa antzekoa da (% 31,1).

Populazio-profilak finantza-erabileraren kontrolaren arabera: azterlanak bi populazio-profil identifikatzeko aukera ematen du:

- *Pertsona seguruagoak, finantzen jarraipen handiagoa egiten dutenak, behar adinako ezagutza dutela aitortzen dutenak, erabakiak hartzeko segurtasuna dutenak eta nahiago dutenak pertsonalki finantzak kudeatzeaz arduratu eta neurri txikiagoan hirugarren bati kontsultatu behar izaten diotenak. Biztanleen % 54,3 dira.*
- *Finantza-erabileraren kontrol txikiagoa duten pertsonak, haien portaera justu kontrakoa da, zalantza, ezagutza, segurtasun, finantzen jarraipen eta abarrei dagokienez. Biztanleen % 39,8 dira.*


2. grafikoa:
Populazio-profilak finantza-erabileraren kontrolaren arabera



Azterlanaren emaitzen arabera, emakume izateak ez du esan nahi finantzaren erabileraren kontrol txikiagoa dagoenik. Emakumeen % 41,9k kontrol-profil baxua du; gizonen kasuan, berriz, ehuneko hori % 42koa da (alde horiek ez dira estatistikoki esanguratsuak). 2014ko datuekin alderatuta, kontrol txikiagoa izatearen pertzepzioa handitu egin da, nahiz eta etxera ekarpen handiena egiten dutenak izan.

Etxera diru gehien ekartzen duen pertsona izateak, ordea, finantza-erabileraren kontrol handiagoa duten pertsonen portzentajea handitzea eragiten du. Desberdintasun horiek emakumeen eta gizonen artean gertatzen dira. Bi taldeetan, desberdintasunak handitu egiten dira, eta horrek esan dezake gaitasun ekonomikoa faktore erabakigarriagoa dela gizonentzat eta emakumeentzat, haien finantza-segurtasuna eta -kontrola zehazteko orduan.

3. grafikoa:
Populazio-profilak finantza-erabileraren kontrolaren arabera: gizonak eta emakumeak




Finantza-kontrolaren profilak zehazten du finantza-erakundeekiko harremanetan pertsonak duten autonomia-maila handiagoa edo txikiagoa: maila apalagoko pertsonen % 5,3k ez dute autonomiarik finantza-erakundeekiko harremanetan, eta % 4,9k, berriz, kontrol handiagoa dutela eta, aldi berean, elkarrekin erabakitze portaera handiagoa dutela adierazten dute.

Segurtasun-ezaren eta finantza-autonomiarik ezaren arteko erlazioa handitu egin da emakumeen kasuan (% 6,2), nahiz eta aurreko azterketan baino zifra askoz txikiagoak izan. Pertsona seguruenen artean, autonomia nabarmenagoa da gizonen artean, eta profil horretako emakumeek, berriz, gehiago jotzen dute finantza-erakundeekiko harremanetan batera erabakitzera.

4. grafikoa:

Bankuekiko autonomia-mailaren eta emakume eta gizonen finantza-erabileran duten kontrol- eta segurtasun-profilaren arteko erlazioa

■ Kontrol gutxiago ■ Kontrol gehiago



Alderantzizko irakurketa batetik abiatuta, pertsonen autonomia-mailak ere zehazten du beren buruari buruz duten ustea:

- Autonomia gutxien duten emakumeak dira finantza-arloan segurtasun gutxien dutenak. Ez da gauza bera gertatzen gizonekin, non zentzua alderantzizkoa baita, zenbat eta autonomia gutxiago izan, orduan eta kontrol handiagoa finantza-erabileraren gainean.

- Emakumeen kasuan, finantza-autonomiarik ezak askoz ere gehiago baldintzatzen du finantza-erabileran segurtasun eta kontrol txikiagoa izatea.


- Emakumeen artean, erabakiak batera hartzea da pertsona seguruen edo finantza-kontrol handiena dutenen ehuneko handiena duena.

- Aurreko azterketarekin alderatuta, pertsonen kontrol txikiagoa erakusten dute finantza-erabileran.

5. grafikoa:

Finantza-erabileran duten kontrol- eta segurtasun-profilaren eta emakume eta gizonen bankuekiko duten autonomia-mailaren arteko erlazioa

Autonomiarekin Erabaki partekatua Autonomia-falta



4.3 Finantzekiko balioak eta jarrerak

Emakumeek gizonen baino arrisku finantzario handiagoa (edo txikiagoa) ote duten aztertu aurretik, beharrezkoa da, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren kontserbadorismo sendoa gogoratzea, bai gizonen bai emakumeen artean erabaki finantzarioak hartzeko orduan, sexuaren arabera alde estatistiko nabarmenik egon gabe.

Gainera, ez da ikusten sexuaren arabera alderik finantza-produktuak erabili edo tramitatzeke orduan izaten diren zailtasunetan:


- Bankuko laburpen bat edo faktura bat irakurtzea ez da hain zaila, 2014ko datuekin alderatuta.
- Kreditu edo inbertsio baten baldintzak zailak izaten jarraitzen dute aurreko azterketarekin alderatuta.
- Kutxazain batetik dirua ateratzea edo online ordainketa egitea ez da batere zaila.

12. taula:
Zailtasunak emakumeen eta gizonen banku-transakzioetan

		EMAKUMEA	GIZONA	GUZTIRA 2022	GUZTIRA 2014	BILAKAERA
BANKU-LABURPEN BAT	Oso/apur bat konplikatua	%14,7	%11,8	%13,3	%29,3	-%16,0
	Ez da hain konplikatua/batere konplikatua	%84,4	%86,7	%85,5	%70,4	%15,1
	Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	
FAKTURA BAT	Oso/apur bat konplikatua	%32,4	%29,5	%30,9	%37,4	-%6,5
	Ez da hain konplikatua/batere konplikatua	%66,7	%69,1	%67,9	%61,5	%6,4
	Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	
KREDITU BATEN BALDINTZAK	Oso/apur bat konplikatua	%67,7	65,7	%66,7	%67,6	-%0,9
	Ez da hain konplikatua/batere konplikatua	%23,4	%29,4	%26,4	%22,9	%3,5
	Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	
INBERTSIO BATEN BALDINTZAK	Oso/apur bat konplikatua	%72,1	%69,0	%70,6	%69,3	%1,2
	Ez da hain konplikatua/batere konplikatua	%14,8	%19,6	%17,2	%16,5	%0,7
	Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	
KUTXAZAIN AUTOMATIKO BATETIK DIRUA ATERATZEA	Oso/apur bat konplikatua	%2,1	%1,5	%1,8		
	Ez da hain konplikatua/batere konplikatua	%96,5	%98,5	%97,5		
	Guztira	%100,0	%100,0	%100,0		
BANKUKO WEBGUNEAREN BIDEZ KARGU BAT EGITEA	Oso/apur bat konplikatua	10,6%	9,6%	10,1%		
	Ez da hain konplikatua/batere konplikatua	87,0%	87,5%	87,2%		
	Guztira	100,0%	100,0%	100,0%		

Hala ere, funtsezko desberdintasun batzuk aurki daitezke. Gizonen kasuan, zenbat eta prestakuntza handiagoa izan, orduan eta joera handiagoa dago arriskurako. Bereizketa hori, ordea, ez da hain nabarmena emakumeen artean. Aurreko azterketarekin alderatuta, pertsonen finantza-arrisku handiagoa hartzen dute.


6. grafikoa:
Emakumeen eta gizonen arrisku finantzarioarekiko ezinikusia, ikasketa-mailaren arabera



40 eta 54 urte bitarteko gizonak arrisku handiagoa hartzen dute finantza-erabakietan. Emakumezkoetan, aldiz, adinak erabakitzen du bere gain hartutako arrisku-maila, eta adin txikiak dira arrisku handiena hartzen dutenak eta zaharrenak gutxien hartzen dutenak.

7. grafikoa:
Emakumeen eta gizonen arrisku finantza-
rioarekiko ezinikusia, adinaren arabera

■ Arrisku txikiagoa ■ Arrisku handiagoa




Autonomia-maila kontuan hartuta, ikusten da autonomiarik ez duten emakumeek finantza-erabakietan arrisku gutxiago hartzeko joera dutela.

8. grafikoa:



Emakumeen eta gizonen arrisku finantzarioarekiko ezinikusia, finantza-autonomiaren mailaren arabera

■ Arrisku txikiagoa ■ Arrisku handiagoa

EMAKUMEA



GIZONA





Izan ere, bakarrik edo seme-alabarik gabe bizi diren emakumeek jokatzen dute arrisku handienarekin. Ardura peko seme-alabak izateak joera hori apaldu egiten du, baina ez gizonen kasuan, arrisku txikiena seme-alabarik gabeko familia batean dagoenean hartzen baitute.



9. grafikoa:
Emakumeen eta gizonen arrisku finantzarioarekiko ezinikusia, bizikidetza motaren arabera

■ Arrisku txikiagoa ■ Arrisku handiagoa

EMAKUMEA



GIZONA





Lan-egoerak ere desberdintasunak eragiten ditu, eta lan-jardunean dauden emakumeak dira jarrera arriskutsuenak hartzen dituztenak; langabezian daudenak, berriz, jarrera seguruagoak hartzen dituzte. Gizonak zuhurragoak dira langabezian daudenean, baina emakumeak baino gutxiago.



10. grafikoa:
Emakumeen eta gizonen arrisku finantzarioarekiko ezinikusia, laneko harremanaren arabera

■ Arrisku txikiagoa ■ Arrisku handiagoa

EMAKUMEA



GIZONA



Kultura-aldagaiari dagokionez, ez dago alde handirik gizonek eta emakumeek aitortutako balioetan, finantzekiko portaerari dagokionez. Halaber, mailegu bat eskatu baino lehen aurreztearen aldeko joera dago. Aldiz, etxeko oinarriko erosketak egiteko kredituak ez dira hain erabiliak, eta ez da hain garrantzitsua aberastasuna metatzea.

Zenbateko osoak 2014arekiko izan duen bilakaerari dagokionez, lehentasunak ez dira ia aldatu, eta joera bera mantendu da finantza-arloan.

13. taula:
Finantza-arloan, emakume eta gizonek balore “maskulino”
eta “femeninoekin” duten identifikazio-maila

Inoiz ez/gutxitan Zenbaitetan Maiz/beti

	2014	2022	BILAKAERA
NAHIAGO DUT INTERES BAXUA EMATEN DIDATEN AURREZKIAK IZATEA, INBERTITUZ ARRISKUAN EGOTEA BAINO, NIRE DIRUAREN ERRENTAGARRITASUNA BAXUAGOA BADA ERE	EMAKUMEA GIZONA 	EMAKUMEA GIZONA 	 %0,05 -%0,01 -%0,02 %0,08 -%0,01 -%0,07
FINANTZA-ERABAKI GARRANTZITSU BAT HARTU BEHAR BADUT (KREDITU BAT ESKATU, INBERTSIO BAT EGIN...), HAUSNARKETA-EPE LUZEA ETA AHOLKULARITZA BEHAR DITUT	EMAKUMEA GIZONA 	EMAKUMEA GIZONA 	 %0,01 -%0,04 %0,03 %0,07 %0,02 -%0,07
NIRETZAT, AURREZKIAK DIRU GEHIAGO SORTZEKO AUKERA BAT DIRA (INBERTSIOEN ETA ABARREN BIDEZ)	EMAKUMEA GIZONA 	EMAKUMEA GIZONA 	 %0,09 -%0,05 -%0,05 -%0,01 %0,02 %0,01
KOSTU HANDIKO PRODUKTU EDO ZERBITZU BAT EROSTEKO GARAIAIN, NAHIAGO DUT ZENBATEKO OSOA AURREZTU ARTE ITXAROTEA KREDITU BAT ESKATU BAINO	EMAKUMEA GIZONA 	EMAKUMEA GIZONA 	 %0,01 %0,00 %0,00 %0,08 -%0,03 -%0,04
NIRETZAT, ABERASTASUNA METATZEA EZ DA GARRANTZITSUA	EMAKUMEA GIZONA 	EMAKUMEA GIZONA 	 %0,06 -%0,05 -%0,01 %0,00 -%0,03 %0,01
ETXEKO OINARRIZKO EROSKETAK EGITEKO, KREDITU BIDEZ ORDAINTZEN DUT HILABETERA EDO HURRENGO HILABETETAN DESKONTATZEKO		EMAKUMEA GIZONA 	

14. taula:
Finantza-arloan, emakume eta gizonek balore
“maskulino” eta “femeninoekin” duten
identifikazio-mailaren bilakaera

Inoiz ez/gutxitan Zenbaitetan Maiz/beti


	2014	2022	BILAKAERA
NAHIAGO DUT INTERES BAXUA EMATEN DIDATEN AURREZKIAK IZATEA, INBERTITUZ ARRISKUAN EGOTEA BAINO, NIRE DIRUAREN ERRENTAGARRITASUNA BAXUAGOA BADA ERE			
FINANTZA-ERABAKI GARRANTZITSU BAT HARTU BEHAR BADUT (KREDITU BAT ESKATU, INBERTSIO BAT EGIN...), HAUSNARKETA-EPE LUZEA ETA AHOLKULARITZA BEHAR DITUT			
NIRETZAT, AURREZKIAK DIRU GEHIAGO SORTZEKO AUKERA BAT DIRA (INBERTSIOEN ETA ABARREN BIDEZ)			
KOSTU HANDIKO PRODUKTU EDO ZERBITZU BAT EROSTEKO GARAIAIN, Nahiago dut ZENBATEKO OSOA AURREZTU ARTE ITXAROTEA KREDITU BAT ESKATU BAINO			
NIRETZAT, ABERASTASUNA METATZEA EZ DA GARRANTZITSUA			
ETXEKO OINARRIZKO EROSKETAK EGITEKO, KREDITU BIDEZ ORDAINTZEN DUT HILABETERA EDO HURRENGO HILABETETAN DESKONTATZEKO			

4.4 Sare formal edo informalak erabilera finantza-jardueran

Finantza-aholkularitza eskatzeko erabiltzen den sareari dagokionez, banketxea da finantza-produkturen bat kontratatzerakoan herritarren informazio- eta aholkularitza-iturri nagusia, eta 10 pertsonetatik 7k erabiltzen dute. Oso urruti daude aholkularitzako gainerako baliabide formal eta informalak.

Sexuaren arabera, gizonak Internet gehiago kontsultatzen duten bitartean, senide edo bikote bat da emakumeen artean aholkularitza-baliabide arruntagoa.

11. grafikoa:
Emakumeek eta gizonak erabiltzen dituzten finantza-aholkularitzako sareak




*Alde estatistikoki esanguratsuak.

Erreferentziako banku-entitateak herritarrentzako lehentasunezko aholkularitza iturri izaten jarraitzen du, lortutako prestakuntza-maila edozein dela ere. Nahiz eta, gainerako bideei dagokienez, oro har, sare informalak aukera ohikoagoak bihurtzen diren unibertsitate-ikasketak dituzten herritarrentzat, batez ere Internet eta senideak emakumeen kasuan eta Internet gizonen kasuan.

15. taula:
Emakumeek eta gizonek erabilitako finantza-
aholkularitzako sareak ikasketa-mailaren arabera


















■ Bigarren Hezkuntzara arte ■ Unibertsitatea



*Alde estatistikoki esanguratsuak.

Emakumeen eta gizonen finantza-aholkularitzak aurreko urtearekin alderatuta izan duen bilakaera bankuan eta Interneten oinarritzen da.

16. taula:
Emakumeek eta gizonek erabiltzen dituzten
finantza-aholkularitzako sareen bilakaera

		GUZTIRA 2014	GUZTIRA 2022	BILAKAERA
ERREFERENTZIAZKO BANKU-ERAKUNDEAN*	EMAKUMEA	 %75,4	 %80,6	+ % 0,05
	GIZONA	 %70,6	 %73,6	+ % 0,03
FINANTZA-AHOLKULARIA	EMAKUMEA	 %26,7	 %18,4	- % 0,08
	GIZONA	 %28,4	 %20,1	- % 0,08
SENITARTEKO BAT*	EMAKUMEA	 %26,2	 %22,6	- % 0,04
	GIZONA	 %20,8	 %19,8	+ % 0,01
BIKOTEKIDEA	EMAKUMEA	 %25,2	 %21,4	+ % 0,06
	GIZONA	 %19,7	 %20,7	+ % 0,04
INTERNET*	EMAKUMEA	 %20,6	 %26,8	- % 0,02
	GIZONA	 %28,9	 %33,3	- % 0,08
LAGUN BAT*	EMAKUMEA	 %17,8	 %15,7	- % 0,09
	GIZONA	 %25,2	 %17,5	- % 0,05
EZ DAUKA AHOLKU BEHARRIK	EMAKUMEA	 %13,1	 %4,5	- % 0,01
	GIZONA	 %15,1	 %10,6	+ 0,01
BESTE BATZUK	EMAKUMEA	 %3,5	 %2,8	+ % 0,05
	GIZONA	 %9,6	 %3,8	+ % 0,05
ED/EE	EMAKUMEA	 %2,3	 %1,2	+ % 0,05
	GIZONA	 %0,7	 %1,5	+ % 0,05
GUZTIRA	EMAKUMEA	%210,7	EMAKUMEA %194,0	
	GIZONA	%218,9	GIZONA %200,8	
GUZTIRA	EMAKUMEA	415	EMAKUMEA 415	
	GIZONA	210	GIZONA 318	

*Alde estatistikoki esanguratsuak.


Diru-ekarpenaren egoerari erreparatuta, etxera dirurik ez ekartzeak edo diru-ekarpen txikiagoak egiteak sare informalak maizago erabiltzea dakar, adibidez, bikotekidea edo senide bat, eta joera nabarmenagoa da emakumeen artean. Aldiz, internet-era jotzen duten gizon gehienek.

Sare formalak, bankua, esaterako, maizago agertzen dira diru-sarrera handiagoak dituzten emakumeen artean, eta finantza-aholkulariak, berriz, maizago erabiltzen dira etxera diru gehien ekartzen duten gizonen artean.

17. taula:

Emakumeek eta gizonek erabiltzen dituzten finantza-aholkularitzako sareak, etxerako diru-ekarpenen arabera

■ Diru-sarrera handiagoa ■ Diru-sarrera txikiagoa/diru-sarrerarik ez



*Alde estatistikoki esanguratsuak.

Ezusteko bati aurre egiteko edo hilabetea pasatzeko benetako beharrei erantzuteko, sare informalak (senideak, lagunak) gehiago errepikatzen dira dirua eskatzeko garaian.

Zenbatekoak handiagoak direnean, ondasun iraunkor bat erostean edo negozio bat abian jartzean esaterako, aukera nagusia banketxeak dira.

Ezusteko bati aurre eginez gero, emakumeek gizonen baino joera handiagoa dute sare informaletara jotzeko. Gainerako kasuetan, aldiz, gizonen eta emakumeen arteko aldea desagertu egiten da.

Emakumeen kasuan, diru-sarrera propioak izateak edo ez izateak ez du desberdintasunik eragiten sare formalen edo informalaren erabileran, baina bai negozio bat abian jartzean.

Aurreko urteko bilakaerari dagokionez, pertsonak, esku-dirua behar badute, gehiago jotzen dute senide edo lagun batengana beste aukera batzuetara baino.


Edozein gasturi aurre egiteko dirua eskatzeko orduan emakumeen autonomiak ez du inolako lehentasunik. Aitzitik, gizonen kasuan, autonomiarik ezak sare informaletara gehiago joatea eragiten du.

Hala ere, erabakiak elkarrekin hartzen dituzten pertsonak nahiago dituzte sare formalak autonomoek edo autonomia gutxikoek baino.


18. taula:

Emakumeen eta gizonen maileguetarako sarbidea, mailegurako arrazoiaren arabera eta diru-sarreraren mailaren arabera


USTEKABEKO GASTU BATI AURRE EGIN *




HILABETEA PASATU



ONDASUN IRAUNKOR BAT EROSI (AUTOA, OPORRAK...)




NEGOZIO BAT ABIAN JARRI





*Alde estatistikoki esanguratsuak.

19. taula:


Emakumeen eta gizonen maileguetarako sarbidearen
bilakaera, mailegurako arrazoiaren arabera

USTEKABEKO GASTU BATI
AURRE EGIN *

HILABETEA PASATU

ONDASUN IRAUNKOR BAT EROSI
(AUTOA, OPORRAK...)

NEGOZIO BAT ABIAN JARRI




*Alde estatistikoki esanguratsuak.


20. taula:

Emakumeen eta gizonen maileguetarako sarbidea, mailegurako arrazoiaren arabera eta finantza-autonomiaren mailaren arabera


USTEKABEKO GASTU BATI AURRE EGIN *




HILABETEA PASATU



ONDASUN IRAUNKOR BAT EROSI (AUTOA, OPORRAK...)



NEGOZIO BAT ABIAN JARRI



* Alde estatistikoki esanguratsuak emakumeen kasuan.

** Alde estatistikoki esanguratsuak emakumeen eta gizonen kasuan.


4.5 Genero-aurreiritziak herritarren artean

Biztanleen % 28,5ek uste du emakumeak gehiago arduratzen direla eguneroko finantzez, eta gizonek, berriz, epe luzerako finantzei buruzko erabakia hartzen dutela. Ehuneko txikiagoak dira, % 11tik gorakoak izan arren, gizonek finantza-erabaki garrantzitsuetan duten zeregina aipatzen dute, emakumeek finantza-gaiekiko interes txikiagoa eta gizonek emakumezkoek baino finantza-kultura handiagoa izatea.


12. grafikoa:
Estereotipo nagusiekin bat egiten duten maila finantzekiko

Ados Ez ados, ez desados Desados ED/EE


GIZONEK FINANTZA-KULTURA HANDIAGOA DUTE, EMAKUMEK BAINO




EMAKUMEK INTERES GUTXIAGO DUTE FINANTZA-GAIETAN, GIZONEK BAINO



ORO HAR, GIZONEK HARTZEN DITUZTE FAMILIEI ERAGITEN DIETEN FINANTZA-ERABAKI GARRANTZITSUAK



EMAKUMEAK GEHIAGO INPLIKATUTA DAUDE FAMILIAREN EGUNEROKOARI ERAGITEN DIOTEN FINANTZETAN, EPE LUZEKO FINANTZA-PLANGINTZAN BAINO; AZKEN HORREN ARDURA GIZONEK HARTZEN DUTE BEREN GAIN



Estereotipo nagusien bilakaera ezartzen da emakumeek, eguneroko finantzak planifikatzeaz gain, gero eta gehiago planifikatzen dutela epe luzera; estereotipo hori historikoki gizonena izan da. Emakumeek gero eta interes handiagoa dute finantza-gaietan, eta familiei eragiten dieten erabaki garrantzitsuetan parte hartzen dute.

21. taula:
Estereotipo nagusiekin bat egiten
duten mailaren bilakaera finantzekiko

Desados Ez ados, ez desados Ados


BILAKAERA

EMAKUMEEK GEHIAGO INPLIKATUTA DAUDE FAMILIAREN EGUNEROKOARI ERAGITEN DIOTEN FINANTZETAN, EPE LUZEKO FINANTZA-PLANGINTZAN BAINO; AZKEN HORREN ARDURA GIZONEK HARTZEN DUTE BEREN GAIN	EMAKUMEA	GUZTIRA 2022	%10,3 -%0,2 -%9,2
	GIZONA	GUZTIRA 2014	
ORO HAR, GIZONEK HARTZEN DITUZTE FAMILIEI ERAGITEN DIETEN FINANTZA-ERABAKI GARRANTZITSUAK	EMAKUMEA	GUZTIRA 2022	%5,4 -%2,6 -%1,3
	GIZONA	GUZTIRA 2014	
EMAKUMEEK INTERES GUTXIAGO DUTE FINANTZA-GAIETAN, GIZONEK BAINO	EMAKUMEA	GUZTIRA 2022	%1,7 -%1,7 %0,4
	GIZONA	GUZTIRA 2014	
GIZONEK FINANTZA-KULTURA HANDIAGO DUTE, EMAKUMEEK BAINO	EMAKUMEA	GUZTIRA 2022	%4,3 -%0,9 -%2,3
	GIZONA	GUZTIRA 2014	

Azterlan horretan, garrantzi bera dute emakumeen diskriminazioaren pertzepzio-mailak eta talde bakoitzaren ezaugarriak. Hala, zenbat eta nagusiagoak izan emakumeak, orduan eta diskriminazio gutxiago sumatzen dute. 2014. urtearekin alderatuta, emakume gutxiagok ikusten dute gutxienez diskriminazio bat, %16,5ek, eta aurreko urteko %18,8ekin alderatuta.

13. grafikoa:
Diskriminazioaren pertzepzio-maila
emakumeen aldetik, adin-taldeka

■ Gutxienez bazterketa mota bat hautematen dute
■ Ez dute inolako bazterketarik hautematen





Ondorioak

Benetan aukeratzen utzi baziguten, luze pentsatu behar izan genuen [...] Bien bitartean, piztuta zeuden izar piloa itzali eta hoztu egin zen. Erabakitzeke garaia da.

[Wisława Szymborska, 1993]

Ezinezkoa gertatu egiten da. Azken koda gisa erabili genuen adierazpen horrekin itxi genuen 2014. urteko *genero-desberdinkeriei eta finantzei buruzko txostena*.

Azterketaren ondorioek adierazten zuten desberdintasun-sare bat zegoela, eta, modu sotilean, lehen azterketa haren ibilbidean ikusgai bihurtzen joan zen.

Orduan, desberdinkeria-sare horiek eta desberdintasunak berdindu eta murrizten laguntzen diguten beste elkartasun-sare batzuk elkarrekin bizi direla aipatu genuen. Kemen horri esker, hamar urte geroago, oztopo horiek gainditzeko gai izan ote garen eta nola egin dugun jakin nahi izan dugu.

Hamarkada baten ondoren kezka horri berriro heldu izanak agerian uzten du desberdinkeria etengabe zalantzan jartzea eskatzen duen sugarra piztuta edukitzeko interesa.

Hamar urte geroago non gauden ikusteko atzera begiratzea urte hauetan guztietan bizirik iraun duen erresistentzia-ariketa gisa hazten ari den keinua da.

2024an, errealitate hori beste ikuspegi batzuetatik irakurtzen saiatu gara, lente garbiago batekin, finantza-arloan genero-arrakalak gaur egun izaten jarraitzen duen errealitate ukaezin bati ezikusi eginez jarraitzen duen narratiba hori zalantzan jartzen jarraitzeko.

2024ko bigarren txosten honen ondorio orokorra hau da: egitura sozioekonomikoetan estereotipoek jarduten duten moduek azaltzen dituzte genero-desberdinkeria horiek. Emakumeentzat, estereotipo horiek eragiten duten emaitza erreala finantza-bazterketa jakin batekin lotuta dago, eta horrek modu desberdinean eragiten du finantza-erakundeekin harremanak izateko moduan, sarbidean, baldintzetan, prezioan eta/edo harreman bereizian.

Gure helburua generoari eta finantzei buruzko zenbait ikerketa-gaitan emaitza orokorrenak identifikatzea izan da, nabarmentzeko, zuzeneko nahiz zeharkako desberdinkeriaaren dimentsioak anitzak eta konplexuak

badira ere, literaturak argi erakusten duela genero-arrakala dagoela, eta horren justifikazio-oinarri argiena da nola eragiten duten genero-estereotipoek emakumeek finantza-esparruan dituzten harremanetan.

Txostenaren lehen zatian, analisiak erakutsi du, alde batetik, emakumeek finantza-kultura txikiagoa dutela eta finantza-ongizatearen autopertzepzio txikiagoa dutela dioen ideian oinarritutako genero-desberdinkeriaaren justifikazioak ezin direla babestu hipotesi horien aldeko datuekin. Batez ere estereotipoen ondorio dira.

Espainiako Bankuaren, Europako Batzordearen eta beste erakunde batzuen emaitzekin ezin dira azaldu modu fidagarrian finantza-ongizatearen kultura txikiagoa eta pertzepzio txikiaren arabera genero-arrakalak. Hezkuntza-maila, jaioterria, adina edo errenta gizonen eta emakumeen artean antzekoak direnean, frogatu da ez dela hipotesi hori bermatzen duen alderik ikusten.

Bestalde, generoari eta ekintzailetzari buruzko literaturaren emaitzen arabera, ezin da esan ekintzailetza neutroa denik generoaren ikuspuntutik. Ezin zaio eutsi baliabideetarako sarbidea merezimenduan eta aukera-berdintasunean bakarrik oinarritzen dela dioen ideiare. Proiektu ekintzaileak abian jarri eta garatzean, finantziazioa eskuratzeko garaian genero-desberdinkeria daude.

Kasu honetan ere, genero-estereotipo eta -aurreiritziak dira, antza denez, emakume ekintzaileek finantziazioa eskuratzeko duten aukeran zuzenean eragiten duten arrazoi nagusietako bat. Genero-alborapen horren egiaztapena oinarritzen da ekimena arrakastatsua izateko itxaropenen eta tradizioz gizonak emakumeek baino posizio hobea izan duten ezaugarri batzuen arteko korrelazioan. Estereotipoek eragina dute gizonak eta emakumeek nola jokatzeko espero den moduari deskribapenak prozesatzen diren moduan. Alde horretatik, genero-erolek gizonari "familiaren sostengu" rola esleitzeko joera dute, eta lidergoa azpimarratzen dute; emakumezkoek, berriz, zaintzaile lana esleitzen diete, eta lotura eta harremanak nabarmentzen dituzte. Egia da emakumeen eskubideak eta rolak asko aldatu direla eta aurrera egin dutela, baina egia da, halaber, estereotipo horiek nahiko egonkorak direla denboran zehar. Ekintzailetzaren esparruan finantziazioa lortzearekin lotutako genero-arrakalak agerian uzten du genero-estereotipoek gaur egun duten iraunkortasuna eta eragina.

Generoarekin lotutako zuzeneko ondorio horiek zeharkako beste batzuek ere sendotzen dituzte, eta horiek indartu egiten dute emakume ekintzaileek gizonetik duten desabantaila-egoera. Azterketa batzuek agerian utzi dute pertsona ekintzailearen adina eta hezkuntza-maila finantziazioa atzitzeko faktore zuzenak ez badira ere, bai bihurtzen dira faktore zuzen bi aldagaiak generoarekin erlazionatzen direnean. Oso ikerketa gutxi hartu dute kontuan ikuspegi hori. Zenbait aldagai, adibidez, adina eta ekimenaren tamaina, zuzenean eta positiboki lotzen dira finantzaketa eskuratzerekin, generoa kontrolatzen ez denean. Hala ere, lotura negatiboa dute generoa kontuan hartzean. Hau da,

proiektu ekintzaileari lotutako ezaugarriak alde batera utzita, genero-estereotipoen ondorioz, emakumeak ez dira gizonak bezala hautematen.

Emakume ekintzaileek finantzaketa gutxiago eskatzeaz gain, finantziazioa lortzeko zailtasunak esponontzialki indartzen dituen faktore bat ekimenak txertatzen diren sektore espezifikoarekin lotuta dago: tradizioz gizonetako nagusi diren sektoreetan sartzea emakumeengan eragin kaltegarria izaten duen elementua da. Emakumeek tradizioz gizonetako izan diren sektoreetan ekitea erabakitzen dutenean, kapital-hornitzaileen ikuspegitik ez dira hain legitimoak eta sinesgarriak izaten.

"Magdalenen estigma" deritzona dago emakume enpresarientzat. Horren ondorioz, enpresa ekimenarekin hain serio eta konprometituta ez daudela uste da;

izan ere, izaera sexista duten ekimen ekintzaile gisa estereotipatzen dira, hazkunde edo onura gutxi ekarriko dituztenak. Genero-estereotipoek, askotan, emakume baten negozioa hobby gisa hartzen dute, lanaldi partzialeko jardura bat edo, areago, etxekoandre gisa duen zereginaren luzapen gisa.

Azkenik, lehenengo kapitulu hori kasu-azterketa batekin ixten da, non, kreditu-eskaera baten simulazioaren bidez, emakumeek finantza-baliabideak eskuratzeko dituzten desabantailak eta oztopoak agerian jartzen baitira. Ikuspuntu intersektionala txertatzean, hots, adina, arraza, etnia eta antzeko aldagaiak sartzen direnean, areagotu egiten dira emaitza horiek.

Bigarren kapituluaren ondasun eta zerbitzuak eskuratzeari buruzko arau-esparruaren zerrenda zehatza jaso da, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioarekiko alderatuta. Finantza-zerbitzuei arreta berezia jartzen zaie esparru horretan. Tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza lortzeko uztailaren 12ko 15/2022 Lege integralak esplizituki jasotzen du sexuagatiko (eta genero-identitate eta -adierazpenarekiko) diskriminazioa debekatzea, besteak beste. 17. artikuluan, jarduera komertzial edo profesional baten esparruan jendeari eskaintzen zaizkion ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko diskriminazioa debekatzen du. Debekua zein eremutan aplikatzen den zerrendatzean, arau horrek esplizituki aipatzen ditu “finantza-zerbitzuak”. Aipamen berezi hori egin arren, arauak ez ditu beste espezifikotasun edo babes-mekanismorik. Ez da aipatzen 2014/92/EB Zuzentaraua, eta ez da aukera baliatu transposizioko hutsegiteak konpontzeko, berariaz aipatzen baitute ez dela diskriminaziorik ezaren printzipioari erreferentzia espliziturik egiten. Gainera, txostenaren atal honetan, diskriminazioaren aurkako eskubidearen esparrutik abiatutako azterketa juridikoa aztertzen da. Azkenik, finantza-zerbitzuetarako sarbidearen eta teknologia digitalen arteko inplikazioa kontuan hartuta, teknologia berrien eta adimen artifizialaren esparruan diskriminazioa debekatzea ere aztertu da.

Deigarria da, besteak beste, ondasunak eta zerbitzuak (finantzarioak) jendaurrean eskaintzean tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea babesten duen araudia oro har indartu arren, datuek berresten dutela hartu-eman ekonomikoetan genero-arrazoiengatik ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko diskriminazioa etengabeko fenomeno dela diru-sarrerak handiko ekonomia duten herrialdeetan. Ikerketak emaitza sendoak ematen ditu oinarritzko ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko orduan dauden genero-desberdinkeriei buruz, hala nola lan-merkatuan, etxebizitzan, zerbitzu publikoetan edo finantza-zerbitzuetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan egoera hori aztertze aldera, txostenaren hirugarren eta laugarren zatian, 2014. urtean biztanleei egindako inkestaren datuak eguneratu dira, eta orduz geroztik emaitzen bilakaera aztertu da. Kasu honetan, barne-kohesio handiagoa eta sendotasun metodologiko handiagoa emateko, hipotesiak araztu dira, eta zortzi baino ez dira geratu. Horien bidez, 1) erakutsi nahi izan da genero-desberdinkeria horiek gehienetan estereotipo nagusietan oinarritzen direla, eta 2) estereotipo horiek baldintzatzen eta eragiten dutela emakumeek finantza-erakundeekin duten portaeran.

Labur-labur, txostenaren laugarren atalean aurkeztutako emaitzei esker, aipatutakoez gain, 2014koei buruzko zenbait datu nabarmendu daitezke. Hauek dira area komunak:

A. Autonomia finantzarioaren maila emakumezkoetan eta gizonezkoetan

Adierazle horri dagokionez, lehenik eta behin, honako hau egiaztatu behar izan da: emakumeek erabaki nagusietan neurri txikiagoan parte hartzen ote duten, eta erabakiak eta erantzukizunak bere gain hartzean dauden ezberdintasun horiek eraginik ba ote duten duen finantza-erakundeekiko harremanetan [H1]. Bigarrenik, generoaren eta beste aldagai batzuen arteko erlazioa aztertzen saiatu gara, bai eta emakumeek finantza-sistema formaleko zerbitzu eta produktuak eskuratzeko garaian duten eragina ere [H2].

Datuek erakusten dute sexuak, berez, ez duela alde handirik ezartzen biztanleen autonomia-profilean. Sexua aldagai bat da, eta beste aldagai batzuekin batera hartu behar da kontuan, hala nola adina, familia-unitatea, prestakuntza eta etxerako diru-ekarpen handiagoak egitea. Horiek dira, hasiera batean, finantza-autonomian dauden ezberdintasunak argiago bereizteko bide ematen dutenak. Horri dagokionez, beraz, badirudi finantza-autonomia handiagoa dagoela bikotekidearekin bizi ez denean, edo bikotekidearekin bizi denean, baina etxera diru-ekarpen handiena egiten duenak eta unibertsitate-prestakuntza duenak. Alabaina, sexuaren aldagaiak, bere horretan, autonomia-desberdintasunei buruzko daturik ematen ez badu ere, inplizituki ematen du, emakumeek askoz garrantzi txikiagoa baitute etxeko diru-sarrerak mantentzen dituen pertsona nagusi gisa.

Nolanahi ere, 2014ko datuei dagokionez, emaitzek adierazten dute emakumeen bilakaera gizonena baino positiboagoa izan da, finantza-autonomiaren mailari dagokionez. Hau da, emakumeak autonomoagoak dira finantza-erabakietan eta finantza-erakundeekiko harremanetan. Gainera, bikotekidearekin bizi direnean, presentzia handiagoa dute partaidetza bateratuan. Bestalde, 2014ko emaitzekin alderatuta, emakumeak finantza-erakundeekiko tratuan duen funtzioa indartu egin da, eta kasuen %32,6an emakumeak dira tratu hori bere gain hartzen dutenak; gizonen kasuan, berriz, %37,1ekoa da.

B. Finantza-kontrola

Finantza-kontrolaren mailan [H3] dauden desberdintasunei buruzko norberaren pertzepzioari dagokionez, ez dirudi esanguratsuak direnik kontratatutako finantza-produktuen jarraipenari, ezagutzari, hartutako erabakien segurtasunari eta etxeko finantzak zuzenean kudeatzeari dagokionez. Oro har, gero eta independenteagoak dira emakumeak izapide eta erabaki autonomoei dagokienez, hirugarrenei kontsultatu beharrik gabe aritzean. Aitzitik, gizonen bilakaera txikiagoa da finantza-produktu bat aukeratzeko behar diren jarraipenean eta ezagutzan. Badirudi finantza-segurtasunaren eta -kontrolaren arteko alde nabarmenenak emakumeen ahalmen ekonomikoarekin lotuta daudela, beste aldagai batzuekin baino gehiago, esaterako, prestakuntza-mailarekin.

C. Finantzekiko balioak eta jarrerak

Oso errotuta dauden bi estereotipo daude, eta emakumeak finantza-arriskuarekiko ausardia handiagoarekin lotzen dituzte [H4], eta, neurri txikiagoan, gizonekoei esleitu izan zaizkien balioekin identifikatzeko joera dute, besteak beste, lehiakortasunarekin, arriskuarekin eta abarrekin. [H5].

Nahiz eta EAEko biztanleriak, finantza-erabakiak hartzeko orduan, kontserbadorismo handia izateagatik nabarmentzen den, 2014ko emaitzekin alderatuz gero, gizonak zein emakumeek finantza-arrisku handiagoa hartzen ari direla dirudi; hala ere, gizonen kasuan, agerian geratzen da, zenbat eta prestakuntza handiagoa izan, arriskurako joera handiagoa dagoela, eta hori ez dela hain nabarmena emakumeen artean.

40 eta 54 urte bitarteko gizonak arrisku handiagoa hartzen dute finantza-erabakietan. Emakumezkoetan, aldiz, adinak erabakitzen du bere gain hartutako arrisku-maila, eta adin txikiak dira arrisku handiena hartzen dutenak eta zaharrenak gutxien hartzen dutenak.

Kultura-aldagaiari dagokionez, ez dago alde handirik gizonak eta emakumeak aitortutako balioetan, finantzekiko portaerari dagokionez.

D. Sare formal edo informalaren erabilera finantza-jardueran

Finantza-aholkularitza eskatzeko erabiltzen den sareari dagokionez, banketxea da finantza-produktuen

bat kontratatzerakoan herritarren informazio- eta aholkularitza-iturri nagusia. Prestakuntza-maila edozein dela ere gertatzen da hori; beraz, badirudi ez dela baieztatzen emakumeen hezkuntza-mailak finantza-aholkularitza eskatzeko erabilitako sarean eragiten duenik [H6].

Sexuaren arabera, gizonak Internet gehiago kontsultatzen duten bitartean, senide edo bikote bat da emakumeen artean aholkularitza-baliabide arruntagoa.

Ahalmen ekonomikoari erreparatuta, etxean dirurik ez ekartzeak edo diru-ekarpen txikiagoak egiteak sare informalak maizago erabiltzea dakar, hala nola bikotekidea edo senide bat, eta joera nabarmenagoa da emakumeen artean.

Ezusteko bati aurre eginez gero, emakumeek gizonak baino joera handiagoa dute sare informaletara jotzeko. Gainerako kasuetan, aldiz, gizonen eta emakumeen arteko aldea desagertu egiten da.

E. Genero-aurreiritziak herritarren artean

Genero-aurreiritziei dagokionez, bi hipotesi baliozkotzen saiatu gara. Alde batetik, emakumeen eta gizonen eta finantza-erakundeen arteko harremanetan tratatu bereizia ote dagoen [H7]. Gai horri dagokionez, emaitzek agerian uzten dute emakumeen diskriminazioaren pertzepzio-maila, bai eta talde bakoitzaren ezaugarriak ere: emakumeak zenbat eta nagusiagoak izan, orduan eta diskriminazio gutxiago sumatzen dute. 2014. urtearekin alderatuta, emakume gutxiagok ikusten dute gutxienez diskriminazio bat, %16,5ek, eta aurreko urteko %18,8ekin alderatuta.

Bestalde, bigarren hipotesiaren arabera, genero-estereotipoak erabakigarriak ziren gizonen eta emakumeen arteko portaera ezberdinetan [H8]. Emaitzen arabera, emakumeek gero eta interes handiagoa dute finantza-gaietan, eta familiei eragiten dieten erabaki garrantzitsuetan parte hartzen dute.

Azterketa enpirikoak zenbait adierazlek 2014arekiko izan duten bilakaera erakusten du, eta nabarmendu egin behar da.

- Sexuaren aldagaia adierazgarria da azterketan, adina, diru-sarrerak, jatorria eta abarrekin batera sartzen denean, eta horrek argi erakusten du oso garrantzitsua dela zeharkako ikuspegia finantzetako genero-desberdinkeria aztertzean.

- Ikerketak erakusten du adierazle batzuek bilakaera ona izan dutela 2014arekiko: emakumeek autonomoagoak gara eta modu aktiboagoan parte hartzen dugu finantza-erabakietan. Kontrol eta segurtasun finantzario handiagoa dugu, nahiz eta elementu horiek guztiak emakumeen gaitasun ekonomiko handiago edo txikiagoari lotuta egon.
- Diskriminazioari buruz dugun pertzepzioa txikiagoa da, eta are gehiago jabetzen gara egoera jakin batzuetan nola agertzen den. Tradizioz gizonen eta emakumeen esleitu zaizkien balioekin alderatuta, kultura-aldaketaranzko mugimendua ere nabari da.

Azterlanaren kartografiak desberdinkeria errealitate iraunkorrekin batera bizi den ikuspegi positiboa erakusten du, eta errealitate horien gainean lanean jarraitu behar da, horiek aldatzeko.

Estereotipoek eragin handia dute oraindik finantza-erabakien arloan.

Literaturak ebidentziak aurkitu ditu haiek emakumeen bizitzan dituzten ondorioei buruz, baina, aldi berean, desberdinkeria horren arrazoiak ulertzeko zailtasuna nabarmentzen duten froga sendoak eskaintzen ditu, gure azterlanean gertatzen den bezala.


Guztia hobetzen ari dela dirudi. Baina galderak hor jarraitzen du: nola ulertu, orduan, emakume askok finantzazioa eskuratzeko oztopoei aurre egin behar izaten dietela sexua dela-eta? Zergatik dira oraindik babesgabeak? Zergatik jarraitzen dugu ikusi nahi dugunari begira, ikusi beharko genukeenari baino gehiago? Gogora dezagun estereotipoen boterea egitura sozial eta ekonomiko guztietan duen errotze sakonean oinarritzen dela, eta, horri esker, betikotu eta ikusezin bihurtzen dituzten sistemak edo praktikak naturalizatu eta arrazionalizatu egiten dira, azken batean, botere-hierarkiak justifikatzeko helburuarekin.

**Ezinezkoa gertatu egiten da.
Jarrai dezagun lanean,
gertatzen dena gerta
daitekeen aukera bakarra
izan ez dadin.**

Erreferentziak

- **Alsos, G. A. eta Ljunggren, E. (2017):** «The Role of Gender in Entrepreneur-Investor Relationships. A Signaling Theory Approach». *Entrepreneurship Theory and Practice* 41(4), 567-590.
- **Anderloni, L., Bayot, B., Bledowski, P., Iwanicz-Drozowska, M., Kempson, E. (2008):** «Financial Services Provision and Prevention of Financial Exclusion». Report prepared for the Directorate-General for Employment, Social Affairs and Equal Opportunities, Brussels, European Commission.
- **Borghans, L., Golsteyn, B., Heckman, J. eta Meijers, H. (2009):** «Gender Differences in Risk Aversion and Ambiguity Aversion». *Journal of the European Economic Association* 7 (2/3), 649-658.
- **Carbo, S. eta Rodríguez, F. (2015):** «Concepto y evolución de la exclusión financiera: una revisión». Madril: Funcas Fundazioa, 10 or.
- **Carter S. eta Rosa P. (1998):** «The financing of male and female owned businesses». *Entrepreneurship & Regional Development* 10(3), 225-242.
- **Cerdá Martínez Pujalte, C. (2007):** «Notas sobre la ley orgánica 3/2007, para la igualdad de mujeres y hombres». *Persona y Derecho: Revista de fundamentación de las Instituciones Jurídicas y de Derechos Humanos* (56), 357-392 orr.
- **Charness, G. eta Gneezy, U. (2012):** «Strong Evidence for Gender Differences in Risk Taking». *Journal of Economic Behavior & Organisation* 83, 50-58.
- **Chobhthaigh, B.N. (2019):** «Understanding the Gender Gap in Financial Well-Being». Discussion Paper 121. Brussels: European Commission, 42. or.
- **Coleman, S. eta Robb, A. (2009):** «A comparison of new firm financing by gender: Evidence from the Kauffman Firm Survey data». *Small Business Economics* 33, 397-411.
- **De Blaiso, B. eta Menin, J. (2015):** «From Cradle to Cane: The Cost of Being a Female Consumer, A Study of Gender Pricing in New York City». NY: New York City Department of Consumer Affairs, 76 or.
- **Díaz Gómez, M. A. eta Pérez Carrillo, E. F. (2015):** «Discriminación de género en el acceso a bienes y servicios en el tráfico mercantil entre privados». *Cuestiones de Género: de la igualdad y la diferencia* (10), 129-150.
- **Malgesini, G. eta Sánchez, S. (2021):** «Inclusión financiera para el desarrollo sostenible, un enfoque de derechos en el proceso de reconstrucción post pandemia». Madril: EAPN España, 78 or.
- **Eddleston, K. A., Ladge, J. J., Mitteness, C., eta Balachandra, L. (2016):** «Do you See what I See? Signaling Effects of Gender and Firm Characteristics on Financing Entrepreneurial Ventures». *Entrepreneurship Theory and Practice* 40(3), 489-514.
- **European Commission, Directorate-General for Employment, Social Affairs and Inclusion, Organisation for Economic Co-operation and Development, Halabisky, D. (2016):** «Policy brief on women's entrepreneurship». OECD Publishing, 2016.
- **Fitzpatrick, A. (2017):** «Shopping While Female: Who Pays Higher Prices and Why?» *American Economic Review: Papers & Proceedings* 107(5), 146-149.

- **Hira, T. eta Mugenda, O. (2000):** «Gender Differences in Financial Perceptions, Behaviors and Satisfaction». Journal of Financial Planning 13(2), 86-92.
- **Hospido, L., Izquierdo, S. eta Machellet, M. (2021):** «Diferencias de género en competencias financieras». Boletín Económico 1. Madril: Espainiako Bankua.
- **Jacobsen, B., Lee, J., Marquering, W. eta Zhang, C. Y. (2014):** «Gender Differences in Optimism and Asset Allocation». Journal of Economic Behavior & Organization 107, 630-651.
- **Kepler, E. & Shane, S. (2007):** Are male and female entrepreneurs really that different? Washington, DC: U.S. Small Business Administration, Office of Advocacy.
- **Machelett, M. (2023):** «Gender price gaps and competition: Evidence from a correspondence study». Espainiako Bankua. Working Paper nº 2333, 71 or.
- **Nanadan, P. eta Fernandez, S. (2017):** «A Study on the Gender Differences in the Spending Attitude and Behavior of IT Professionals in Urban Bangalore». International Journal of Business and Management Invention 6: 55-59.
- **Padilla, A.M. eta Sanchis, J.R. (2015):** «La relación causa-efecto entre exclusión/inclusión social y financiera: una aproximación teórica». Revesco. Revista de Estudios Cooperativos 138, 22 or.
- **Stefani, M.L. eta Vacca, V. (2015):** «Small Firms' Credit Access in the Euro Area: Does Gender Matter?». CESifo Economic Studies 61 (1), 165-201.
- **Emakumeak eta Zientzia Unitatea, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioa (2024):** «Mujeres e Innovación. Informe 2024». Madril: La Moncloa.
- **Wollstonecraft, M. (1994):** Vindicación de los derechos de la mujer. Madril, Cátedra.
- **Young, I.M. (2000):** La justicia y la política de la diferencia. Madril: Cátedra.



FINANTZAK ETA GENERO DESBERDINKERIAK

NON GAUDE
HAMARKADA BAT GEROAGO?